



Ingude altxatzen,
marka berriak eta
txapelak → 37

Herriko bestak

Bera, Leitza, Sunbilla, Ziga,
Beintza-Labaien, Gaztelu

BERA → 30

Gau lasterketa antolatu
du lehen aldiz Manttalek

ZUBIETA → 39

Gurasoak eta udala berriz
ere eskola ireki nahian

ARESO → 44

Oinezko bidea abuztu
bukaerarako prest

BAZTAN → 47

Aukera berdintasunaren
diagnosia aurkeztu dute

UHOLDEAK BAZTANEN



ARGAZKIA: ONDIKOL

ERREPORTAJEA → 3-5

Kaltetuek abuztutik aitzinera eska ditzakete zerga-salbuespenak

1,5 milioi euro inguruko diru-funtsa aurreikusi du Nafarroako Gobernuak Baztanen kaltetutako bide, zubi eta bertzelako hondasun publikoak moldatzeko. Espainiako Gobernuari laguntza bereziak eskatuko dizkiola ere eman du jakitera, etxe eta dendentzako laguntza arrunten osagarri izanen direnak. Zerga-salbuespenak Udalaren bitartez tramitatuko dira eta epea abenduaren 30ean akituko da.

PILOTA | Beratarrak Euskal Herriko Herriarteko Pilota Txapelketan

Nafarroako Herriarteko txapela irabazi ondotik, Euskal Herrikoan dabilta orain beratarrak

Nafarroako Herriareko Pilota Txapelketaren historian, bere bigarren txapela jantzi du Berako taldeak. Alebin, infantil eta senior mailetan nagusitu ziren beratarrak uztailaren 5ean Labriten jokatu zen txapelketan. Euskal Herriko Herriartekoan ari dira orain. Finalerako pasea asteburuan erabakiko zen Beran, Amurrioren kontra.

KIROLA → 52



ZOKKETAK

→ 59



ttipi txartela eginez gero 2 liburu opari

Txartela egiteko deitu
948 635 458 telefonora

BEIRA BIRZIKLATU JAIETAN (ERE)!!



© kukuxumusu



ARGAZKIA: INAKI ATXA
Elizondoko frontoian, herritar talde bat urari aurre egin nahian.

GIZARTEA → UHOLDEEN ONDORENA

Aitzinera egiteko garaia da

Kalteak zenbatzen eta diru-laguntzak eskatu ahal izateko tramiteak egiten ari dira

Uztailaren 4ko uholdeek zerrenda beltza ekarri dute gibeletik: urak irentsitako komertzio eta ostatuak, hondatutako baserri bide eta zubiak eta ehunka kalte material. Baina

gertaerak izan du argitik ere: auzolanaren ondorioz, momentuko hondamenari erantzuna eman zitzaion. Orain, datozen hilabeteetan kalte-ordainak iristen hastea espero dute.

E. IRAOLA/ G.PIKABEA

Hogei minutu nahi-koak izan ziren guztia hankaz goiti jartzeko, ura pentsa ez zitekeen tokietaraino iristeko. Eta urak baretzean, uholdearen arrastoari aurre egin behar izan diete ehunka baztandarrek.

Igerian zebiltzan jan-tzi, janari eta altzari au-nitz, lokatzak irentsi zi-

tuen bertze batzuk eta urak zubi eta errepede-ak desagerrarazi zitu-en. Hasierako larritasun eta ustekabeak baina, elkartasunari egin zio-ten leku: Baztan eta inguruetatik jende uga-ri bertaratu zen lagun-tzeko asmoz.

Uztailaren 5ean, goi-zeke bederatzietarako egin zuten auzolanera-

ko dei ofiziala, baina aitzinetik ere, alerta la-ranja amaitu eta bere-hala hasita, aunitzek egi-na zuten euren esku ze-goen guztia. Euren etxeetan zuten nahas-tea txukuntzea gerora-ko utziz.

Errekatik hurbilen dauden lekuetan izan ziren kalterik nabarmen-enak, Elizondoko Txo-

LEHENTASUNEZKO JARDUERAK		
Ordena	Non?	Konponketa
1	Erratzu	Elortarako bidea
2	Erratzu	Mortalengo bidea
3	Erratzu	Kastoneko bordara
4	Arizkun	Zerrategiko zubia
5	Aritzakun	Aritzakungo bidea
6	Erratzu	Matxineko bordara bidea
7	Erratzu	Mapitxen borda
8	Elizondo-Elbete	Zubia
9	Ugaldea	Zubia
10	Iñarbil (Erratzu)	Maxaborroko bordara bidea
11	Beartzun	Zelaietako bordara bidea
12	Beartzun	Beartzun auzoa
13	Beartzun	Gamioko borda

koto, Jaime Urrutia eta Giltxaurdi karriketan agerikoa zen uraren in-darra eta Erratzun, hain-bat baserri inkomunika-turik gelditu ziren. Hain zuzen ere, Zahar Etxea eta Erratzuko baserri bi-

deen egoera izan ziren hasierako arreta gune nagusiak. Lehendabizi-koa, zerbitzua ezin ze-lako eten eta bigarrena, inkomunikazio egoerak arriskua handitzen zue-lako.

Horien ondotik, ailegatu zen Elizondoko erdiguneko karriketan lanean gogor hasteko garaia. Bertako saltoki, jattetxe tailer edo aroztegietan handia izan da hondamena. Berreskura ezin zitekeen materiala bildu, Merkatu plazan inprobisatutako zabortegira eraman eta lokalak garbitzen aritu ziren ordu luzez, bihar-munean berriro ere lanean ekiteko. Zahar, heldu eta gazte, hurbilekoak zein Euskal Herri osotik hurbildu zirenak «bertzela inongo harremanik ez duten pertsonak elkarrekin lanean aritu ginen, tirabirak... alde batera utzita» erran digu auzolanean aritutako batetik. Elkarlan horri esker, astelehenerako "normaltasun" itxura zuten karrika nagusiek.

KALTEAK ZENBAKITAN

Kalteak zenbatzeko tenorea heldu zen orduan eta horretan ari dira oraindik. Udalak erai-kin publikoetan 2-3 milioi euroko kalteak zenbatu ditu dagoeneko. Langile bat ere kontratatu du aseguruaren partzuergoekin koordinazio lanak egin eta uda-



ARGAZKIAK: ONDIKOL ETA I. ATXA

Adin guztietako pertsonak hartu zuten parte garbiketa lanetan.

lak izan dituen kalte guztiak konpentsatuko direla ziurtatzeko. Oraingoz, Nafarroako Go-

bernua 1,5 milioi euroko laguntza agindu du. Etxepartikularretako kalteak berriz, aseguru-

etxeek baloratuko dituzte, baina lehendabiziko datuek diote 500 inguru direla kaltetuak.

KALTE PRIBATUAK

Guztia legeztatua eta aseguruak indarrean edukitzea ezinbertzekoa da konpentsazioak jaso ahal izateko.

MERKATARIEN ESKERTZA

Jasotako laguntza eskertu nahi izan duenik ere bada. Bertan merkatarien elkartek, eskerrak eman nahi izan dizkiete «borondatez eta eskuzabaltasunez lagundu diguzuen guzti-guztiei». Ohar bidez adierazi dute «miresgarria eta laudagarria izan dela zuen ahalegina gure karriek eta dendek lehengo itxura, betidanik ezagutu izan dugun Elizondorena, azkar batean hartzeko». Izandako laguntzari esker, herritarrek «bertzeenganako elkartasuna eta laguntza bihotzetan» dituztela diote merkatariek, «adin eta izaera guztietako pertsonen bihotzetan». Denda batzuk ireki dituzte dagoeneko eta falta direnak ahalik eta azkarren ireki eta zerbitzu osoa eskaintzeko ahaleginean ari direla ere jakinarazi dute.



EGOERAREN BALORAZIOA

Garbiñe ELIZEGI | BAZTANGO ALKATEA

«Herritarren erantzuna eredu-garria izan da, horri esker aste-lehenean nolabaiteko normalidadea zen nagusi karriketan»

Garbiketa lan gehienak akituta, «kalteen balorazioa egiten» ari direla azaldu digu Garbiñe Elizegik, Baztango alkateak. Horretarako, alde batetik, «arlo publikoan, pistetan izan diren kalteak aztertzeko pertsona bat dugu lanean eta udal eraikinetan nolako kalteak izan diren jakiteko peritu bat kontratatu dugu, estimazio bat egiteko». Oraingo, «lehentasuna duten lan batzuk izendatu ditugu baserrietako bideetan. Lehenbailehen egin beharreko 13 obra dira, baserriak inkomunikaturik gelditu direlako». Horiek bakarrik, «miloi bat euro badira gastuetan» aipatu digu, «baina lan gehiago ere beharko dira eta denak aztertuta, lan guztien aurrekontua bizpahiru asteren buruan izanen dugu».

Kalteen artean, zahar etxea izan da arreta gune nagusietako bat «kalte handiak izan dira, beheko sotoan zeuden makina guztiak hondatu ditu urak. Hor bakarrik 200.000 euro joanen zaizkigu eta lanak ez dira hor bukatuko, margotu, elektrizitate lanak» ere beharko baitira. Horretaz gain, Balleko etxean, Arizkunenean, liburutegian eta Giltxaurdi igerilekuan eta futbol zelaian ere badira kalteak.

Urak aitzinean harrapatutako guztia eraman edo hondatu zuen, «Elizondo herrian eta baserrietan kalteak izugarriak izan dira. Baserriar aunitzek silo bolak, behiak, ardiak... galdu dituzte. Lehen belagiak zirenak orain erreka bihurtu dira. Merkatari eta negozioek ere kalte handiak izan dituzte». Dena den, «pozik» egoteko arrazoiak ere badira, «ez duelako inork minik hartu». Herritarrek «batzuk izututa» ikusten dituela aipatu digu «beldurgarria izan da gertatu dena, batzuentzat etsigarria ere izan da. Baina bertetik jendea lanean ari da eta ahal duen moduan bere bizitzarekin segitzen du».



Egoera bere onera etortzeko «hilabeteak» beharko direla aitortu digu, baina «honi ere aitzinera egin beharko zaio». Bitartean, handik eta hemendik, irtenbideak bilatu nahian dabilta, «Udalak Nafarroako Gobernuari hondamendi eremu izendatzeko eskaria egin zion eta hala egingen duenez, hortik bideratuko da Espainiako Gobernuak laguntzak ematea». Gainera, «kaltetuak izan direnek zerga salbuespenak izatea» ere eskatu diote eta Nafarroako Gobernuak onartu du. Hala, abuztu hasieratik aza-roaren 30era arteko epea izanen dute interesatuek zerga salbuespen eskaria egiteko Balleko Etxean.

Auzolana deitzea izan zen Udalak hartutako berehalako neurrietako bat eta «izandako erantzuna izugarria» izan zela eta, «alde horretatik arras eskertuak gaude» gaineratu digu. Nafarroako Gobernuak ere «garaiz erantzun» zuela uste du Baztango alkateak «momentuan ongi markatu zituen lehentasunak eta koordinazioa ere ona izan da».

Laguntzak noiz iritsiko diren galdetuta, data zehatzik ezin dela aurreratu aitortu digu «Aseguruen Partzuergoari dagokio partikularren kalte-ordainak ordaintzea, Tokiko Administrazioak azpiegituretarako dirua bideratuko du eta udal eraikinak konpontzeko gastuak, udal aseguruak hartuko ditu bere gain».

Betiko eztabaidak ere piztu ditu Elizondon gertatutakoak «Ur konfederazioak beti aipatzen du Txokotoko presa oztipoa dela, baina ez da hori arazo bakarra. Giltxaurdiko zubia, hurrengo zubien zuloek ere traba egin dezakete, errekan gelditzen diren zuhaitzak ere ez dira garbitzen...». Horrelako egoerak saihesteko plan bat egitea proposatzen dute Elizondorako eta «hori denborarekin egingen» dutela aipatu digu Garbiñek, «gure us-tez arazoa ez baita bakarra eta ongi aztertu beharko da guztia».

KALTETUEK OBRA BAIMENAK ESKATZEKO PROZEDURAK ETA ARGIBIDEAK

NAHITAEZ ESKARIA

Etxebizitza edo lokaletan obra egiteko nahitaez baimena eskatu behar da. Kaltea uholdeek sortua dela adieraziz.

OBRA TTIKIA BADA

Eskaera udal erregistroan sartu eta egun batera emanen dira baimenak.

OBRA HANDIA BADA

Eskaera erregistratu, azterketa sakonagoa egin eta egun beteko epean abisatuko da segitu beharreko prozedura zein den.

OBRAK LEGALIZATUAK

Jarduera ekonomikoa duten lokalek obra baimena lortzeko, obrak legalizatuak egon behar du.

LEHENTASUNA

Jarduera ekonomiko-ren bat duten lokalen eskaerek lehentasuna izanen dute.

ZABORRAK

Hemendik goiti bota beharreko zaborrak, norberak kudeatu beharko ditu eta eremu pribatuan dauden zuhaitz, harri eta zaborrak garbitzea ere norberaren ardura izanen da.

ERREKA BAZTERREKO ZUHAITZAK

Ezin dira baimenik gabe hartu. Eskaera Balleko Etxean egin behar da.

ESPAINIAKO MINISTERIOKO LAGUNTZAK

Hilabeteko epea izanen da eskaerak egiteko

Nafarroako Gobernuak kaltetutako zonaldea hondamendi eremu izendatu ondotik, segidan espero da Espainiako Gobernuak laguntza neurriak zehaztea. Oraindik zenbateko zehatzik ezin liteke aipatu baina, **entitate publikoez gain, pribatu-entzat ere laguntzak** iritsiko direla aurreikusten da eta hauek hartu ahal izateko tramiteak, Baztango Udalak kudeatuko ditu. Jarraitu beharreko prozedura zein den argitzen dutenean, **etxeetara informazioa bidaliko dutela** aipatu digu alkateak eta segidan hilabeteko epea izanen dela eskaerak egiteko. **Formularioak Balleko Etxera ekarriko dituzte Ministeriotik eta kaltetutakoek bertan betetzeko** aukera izanen dute. Formulario guztiak osatzean, Ministerioa igorriko dituzte.



Nire txanda
Ruben GARATE

Uztailaren 4a

Hau irakurtzerakoan aunitzek atzendu izanen dute gertatutakoa, edo ez dute hain present izanen, baina idazterako unean baztandarek oraindik hitzetik hortzera darabilte. Goizeko 8ak ziren baztandar aunitzen eguneko lan-aurreikuspena erabat aldatu zenean. Lan egun arrunt bat izatetik mugimenduaren eta etsipenaren zirimolara pasatu zen, egunerokotasunaren lasaitasunetik, bizilagunen zailtasun eta nahasmendura. Zenbat denboran egindako zenbat lan zaborteigira bota beharra! Ez komertzioak bakarrik, baita etxeak, zubiak, pistak eta belagiak ere uraren menpe... Denak erraustu ditu uholdeak. Baina beti bezala, horren guziaren ondotik, bada ondorio onak ateratzerik ere, eta kasu honetan, herri oso baten lana eta eskuzabaltasuna izan da, karrikara atera eta nonahi eta nolanahi laguntzeko borondatea, garbiketa lanetan nahiz hondakinak kentzen, galdetu gabe eta nori laguntzen ari den inporta gabe, trukean deus eskatu gabe, laguntzeagatik bakar-bakarrik. Nere elkartasuna eta babesa kalte-tutako guziei, dena bere onera etorri dadila ahalik eta hobekien eta horrelako gertakarien berririk, ez dezagula berriz ere eman beharrik izan.

Ezpala
Aitor AROTZENA

Aljeria txapeldun

Zorionez, inoiz ez dugu jakinen futbol mundiala irabaztearen truke *Basokoren* mutil bakoitzak eskuratu behar zituen 720.000 euroekin zer egingen zuen. Zoritxarrez, Pablo Zabaleta *leitzararen* Argentina kopa irabaztetik urrats batera gelditu da. Alemaniak laugarrena irabazi du, merezita, baina aljeriarrak dira egiazko txapeldunak: lortutako saria Gazara, Palestinara bideratu dute. Sucram!

Nabarmentzekoak



Miguel de la QUADRA
Abentura Parkea irekitzen

Berak gidatzen duen Ruta Quetzal Baztanen barna eraman bidena-barkoan, Beartzungo Baztan Abentura Park inauguratu zuen uztailaren 12an, txupinazoa botaz.



Maika ARIZTEGI
Ingude altxatzen marka

Nafarroako ingude altxatze txapelketa irabazi zuen, marka berria ezarritik (93 altxaldi). Lehen aldiz egin den Euskadiko txapelketa ere irabazi zuen Markin uztailaren 16an.



Auxtin ZAMORA
1914ko gerlax liburua

Senpertar ingumak 1914-1918 iburua idatzi du Senpereko idazle eta olerkariak. 1914tik 1918ra iraun zuen Lehen Mundu Gerra Senperen nola bizi izan zen bildu nahi izan du.

Aztera begira → 2004-VIII-12 / LURRA 34-35 zk.



Makilak lantzen zituen Arraiozko Joxe Mendigurenekin

Ttikitatik hasi zen egurrekin lanean Joxe Mendiguren, sortzez oiartzuarra eta aspaldian Arraiozen bizi zen eskulangilea. «Zer gogoratzin zitzaidan huraxe egiten nuen, karroak, muñekoak... nire kabuz hasi nintzen» zioen Lurra aldizkariaren argitaratutako elkarrizketan. Lan hauetarako berezko dohaiak behar direla ere uste zuen Mendigurenek: «Gehiena berezkoa behar da. Hau bertsolariak bezala da, bertsolaria berezkoa baldin bada beste grazia duten bertsoak botako ditu, eskolan ikasiak baino hobeak. Honetan ere berezkoa baldin baduzu, tak! Zernahi egiteko ideia etortzen zaizu burura».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usua Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itxaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larraalde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz

Fundazioaren Presidente Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia
Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	40€	Europa	59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Ipar Euskal Herria	59,50€	Amerika eta Australia	124€	Leitza	17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Suspensea edo suspensoa 0-3 urte artean

Amaia ZUBIETA (0-3 urte arteko Hezkuntzaren alde)

Hamaika azterketek utzi dute agerian, haur eskoletan oinarritzko baldintza batzuk betetzen badira (hezitzaile tituludunak, formakuntzajarraia eskura, ratio egokiak, espazio zaindu eta dibertsifikatuak, ekipamenduak, heziketa-proiektu egokia, soldata duinak...) 0-3 urte artean eskolara joatea onuragarria dela. Frogatua dago elikadura osasuntsua, osasun balditza onak, maitasuna eta afektua garrantzitsuak direla baina, zerbait gehiago ere behar da haurraren garapena egokia izateko. Heziketa behar da.

Kalitatezko haur eskola bat, erritmo biologikoak eta izaera egituratzen laguntzeko tokia da. Haur bakoitzaren beharretara egokitu eta familiarik kanpoko espazio eta denbora tarte bat eskaintzen diena jolasarako, neska-mutikoen ezagutza esparruak zabaltzeko. Zoritzarrez

2014an oraindik azaldu beharreko puntuak dira atarian aipatutakoak. Nafarroako Parlamentuko ordezkari eta hainbat agintarierakusten duten ezjakintasunaren ondorioz. Ezjakintasuna bezain kaltegarria da hitzez babes-tu eta gero behar denean euren hitzak ahazten dituztenen jarrera.

Ikasturtea amaitu da eta balantzea egiteko ordua da. Irakasleko behar baino ikasle gehiago ditugu eta hori harreta egoki eta pertsonalizatua eskaintzeko traba da. Ikasgelak gutxitzen ditu Hezkuntza Departamentuak, baina

ordaindu beharreko kuotak %200 igo dira azken bost urtetan. Doako zerbitzua izan beharko lukeena luxuzko artikulua bihurtu da, aunitzek ordaindu ezin dutena. Ikasle gutxiago matrikulatzeak, lanpostuen galera ere badakar. Udaletxeek ere amesgaiztoa bizi dute, kontseilariak diru-laguntzak kenduko dituenaren mehatxua egiten dielako etengabe. Beti defendatu izan dugu dirua badela eta haur eskolak ez direla gastu bat, oraina eta etorkizunerako inbertsioa baizik. Gogo txarrez jokatzuta, leialtasun instituzionalik gabe, ordainketetan atzeratuz eta onartu ezin litezkeen baldintzak exijituz. 2014ko ekainaren 26an adostutako lege foral batek behartzen du Nafarroako Gobernua beharrezko diru-laguntzak ematera. Baina ikusi beharko da legea betetzen duen eta nola betetzen duen.

Hala ere, neska eta mutikoei merezi dutena eskaintzen segitzen dugu: gure profesionaltasuna.

«Frogatua dago elikadura osasuntsua, osasun baldintza onak, maitasuna eta afektua garrantzitsuak direla, baina zerbait gehiago ere behar da haurraren garapena egokia izateko. Heziketa behar da»

Hobe da aurrez neurriak hartzea

Jose M^a LANA MORENO (Malerrekako Osasun Zent.)

Esaera zaharrak dioen bezala: "Zauria sendatzea baino, ez egitea hobe". Hemen dituzu 10 aholku zure burua babesteko, ea erabilgarriak diren!

1. Segurtasun tresnak erabili (lanean, kotxean, bizikletan, eta abar...); bizia salba diezazukete. Poliki gidatu eta ez gidatu edan edo drogak hartuz gero.

2. Garbitzeko gailuak, botikak eta arriskutsuak diren gauzak umeengandik gorde itzazu. Ez erortzeko, alfonbrak eta etxean dauden trabak kendu itzazu, gehien bat adineko jendea baldin badago.

3. Sexu-harremanetan, ikas ezazu antisorgailuak egoki erabiltzen. Tartekako harremanetan, kondoia edo preserbatiboa erabili, nahi ez diren haurdunaldiak saihesteko eta IHESA bezalako eritasunik ez hartzeko.

4. Elikadura orekatua egin, zure adinera egokitu-tako ariketa fisikoa egin eta zure pisua orekatua mantentzeko.

5. Alkohola neurrian hartu edo ez edan; tabakoa eta bertze drogak ez itzazu kontsumitu. Ez dute deus moldatzen, eta bai,

ordea, arazoak sortu.

6. Zure osasun zentroan gomendatzen dizkizuten errebisioak egin. Eurek aholkatutako txertoak hartu; ez ezazu zure kontura botikarik hartu; arrisku kardiobaskularren faktoreak zaindu itzazu (tentsio altua, diabetesa, kolesterola...); eta minbizia detektatzeko programetan parte hartu.

7. Sintoma bat edo edozein seinale zure gorputzean sumatuz gero (adibidez, berriki ateratako

egiterakoan edo gorpuztik egiterakoan odola botatzea; arruntak ez diren orbanak larruan izatea; arrazoirik gabe pisu franko galtzea edo bertze edozein sintoma arraro), medikuarengana hurbildu gerora utzi gabe.

8. Eguzkitik babes zaitetz; ez sobera hartu, eta babesteko krema erabili. Eguerdian ez hartzen saiatu.

9. Eritasunaren bat izanez gero, osasun-langileen aholkuak jarraitu, eta botikak behar diren bezala har itzazu. Eurekin egon edozein kezka edo izanez gero,...

10. Eta gehienbat, BIZITZAZ gozatu, ingurugiroaz eta zure inguruko jendeaz!!

«Sintoma bat edo edozein seinale zure gorputzean sumatuz gero (adibidez, berriki ateratako konkorraren bat, eztula egiterakoan odola botatzea edo bertze edozein sintoma arraro), medikuarengana hurbildu gerora utzi gabe»

Eraso sexistarik gabeko pesten alde

ESKER MILE AUNITZ DENEI, BIHOTZ-BIHOTZEZ

 Faxes: 948 63 54 57

Prentsatik bildutakoak



«Ez pentsa! [Sky taldean askoz tentsio handiagoa izango dela] Oso ondo ari naiz egokitzen taldera, eta aurreko urteetan baino tentsio gutxiago nabaritu dut. Gauzak nahi bezala atera ez arren, txirrindulariengan konfiantza handia daukate taldean, badakitelako ahal dugun guztia egiten dugula. Nigan konfiantza handia daukate nabaritu dut».

Mikel NIEVE

Leitzako txirrindularia
BERRIA 2014.07.04



«Sanferminetako zazpi egunetan berdin zait behar diren kilometroak egitea, entzierroak bakarrik sortarazten dizkidan emozio horiek sentitzearen truke. Segundo gutti dira, baina emozio-urakan hori ez da bertze deusekin konparatzen ahal». «Gurasoek ttikitatik ekarri naute zezen-plazara entzierroa ikustera, baina inork ez du afiziorik»

Adur OTXANDORENA

Elizondoko gaztea
D. NOTICIAS 2014.07.14

11 galdera labur

Nor dugu Eneko Erasun?

Beintza-Labaiengo 25 urteko mutiko alai bat.

Teknologia berriak sarean galtzeko edo aurkitzeko?

Hori erabiltzailearen eta bilatzen duzunaren araberakoa da, batzuk nahiko trebe ibiltzen gara, bertze batzuk ordea nahiko galduak! (irriz)

Musikazalea oso, segituan eza-gutzen omen ditu kantuak zure disko gogorrak?

Bai, asko gustatzen zait musika entzutea, estilo gehienak gustuko ditut eta nire ingurukoek hala diote, ez dagoela nik ezagutzen ez dudana abestirik!

Milaka abestiren artean, gomen-dio bat?

Buff! zaila da abesti bat bakarrik aukeratzea, momentu bakoitzak bere abesti edo estiloa eskatzen du, miño azken aldiaren ezagutu eta asko entzuten duten bat izaki gardenak-en Zuen eguzkia da.

Asteburuko planik ederrena?

Lagun artean egun pasa edo bazkariren bat egin eta eguna juerga eder batekin bukatzea.

Zerk egiten ditu berezi Beintza-Labaiengo besta?

Herriko giroak, zahar eta gaz-

te, denok hartzen dugu parte bestetan. Ah, ta nola ez... aizkora apostuak!

Bestetako egunik politena?

Herri bazkaria dudarik gabe! Arrunt giro polita izaten da eta jendea oso animatua ibiltzen da.

Gautxori edo eguneko bestazalea zara?

Konpainia eta giro ona bada bietan pasa dezakezu primeran!

Bestondoa pasatzeko sekretua?

Norbaitek baldin badaki konta diezadala, nik oraindik ez dut deskubritu!

Beintza-Labaiengo txokorik ederrena?

Gorako kaxkoa, herri osoarean bista polita dagoelako bertatik.

Amets bat?

Munduan zehar bidaiazteko aukera izatea: toki asko gustatuko litzaidake bisitatzea: Australia, Estatu Batuak, Islandia, Mexiko...



Eneko ERASUN IRISARRI → Beintza-Labaiengo gaztea

Lulu

Hondarribia kalea, 15 Atzeko aldetik
IRUN - Tel. 943 616 165

Merkealdia

38tik 64ra bitarteko neurriak



ORDUDEGIA BERRIA:

Astelehenetik ostiralera: 10:00-13:00 • 16:30-20:00
Larunbatak: 10:00-13:00

LARUNBAT ARRATSALDETAN ITXIA



Atzalea 1 - BESA
Tfno: 948 651 488



Frain Auzoa - LESAKA
Tfno: 948 637 626

PPSOE,

Euskal

Telebista

digitala

Nafarroan

orain!

Berria erosi taldea

GIZARTEA

MENDIA → SANFERMIN GARAIA

Arkupeak elkarteko hamaika mendizale Piriniora joan dira

Eguraldiaren
ondorioz,
hainbat ateraldi
egin gabe utzi
dituzte

Fernando ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko hamaika mendizale joan ziren uztailaren 8an, Sallent de Gállego aldera, Aragoiko Pirinioetan egun batzuk eman asmoz. La Sarrako presatik Respomuso aintzirara joan ziren eta bertako aterpean hartu zuten ostatu. Biharamunean Balaitusera igotzeko asmoa zuten, baina aterpeko zaindariaren aholkua segituz, Gran Fachara igotzekoan gelditu ziren. Lainoan eta haize gogorarekin abiatu abiatu ziren, baina lehen zailta-

sunak izan zuten Campo Planoko aintziran, oinutsik igaro behar izan baitzuten erreka eta euria hasi zuen. Halere, lehen maldak igotzen hasi ziren behelainoarekin eta elurpean. Baina, momentu batean ezin izan zuten aurrera segi eta arriskurik ez hartzeko, buelta eman zuten.

Biharamunean Arrilesko aintziretara jo zuten. Hirugarrenera ere ailegatu ziren, baina elurra hormatua zegoenez eta irristatu eta ura erortzeko arriskua, ogitartekoa jan eta aterpera bueltatu ziren eguerdian. Arratsaldean itzuliz bat egin zuten Latour ingurura. Hurrengo egunetarako ere eguraldi kaxkarra iragarria zegoenez, Bachimañara edo Garmo Negrora ez igotzea erabaki zu-



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Inguru ikusgarrian ibili dira mendizaleak, baina ez dute suerterik izan eguraldiarekin.

ten eta bakoitza bere herrira itzuli zen.

BEHOBIA JUBILAZIOA TRAMITATZEKO AHOALKULARITZA BERRIA

Frantzia erretiroaren inguruko 3.000 gestio baino gehiago egin zituen Jose Silvaren heriotzaren ondorioz, Magaly Goyer zuzenbidean lizentziatuak Behobian aholkularitza bule-

go berria ireki du, Charles Pucheu karrikaren 37.ean. Edozein informaziorako, Arkupeak elkartearen bulegora deitzen ahal da, 948 450878 telefonora, 09:30etik 12:30era.

MENDI ATERALDIA

Uztailaren 31rako ere mendi ateraldia antolatu dute Arkupeak-eko mendizaleak. Ezkurra-

ko frontoitik abiatuta, Ola baserrira jeitsi eta Basakaitzetik Zuparrobiko kaxkora igo, handik Perralekura eta handik Ezkurrara jautsiko dira mendizaleak, lau ordu eta erdi inguruko ibilbidean. Barranka ostatuan bazkalduko dute eta parte hartu nahi duenak Arkupeak elkartera deitu beharko du uztailaren 26ra bitarte.

ELKARTASUNA

Saharako hamalau neska-mutikogurean dira udapasa

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 29an ailegatu dira gurera Saharatik uda pasatzera etorritako 14 neska-mutikoak, Saharaztan, Baztan-Bidasoko Saharar Herriaren aldeko elkartasun taldearen bidez. Azpilkue-ta, Elbete, Elizondo, Berroeta, Zubieta, Doneztebe, Sunbilla, Lesaka eta Arizkuneko egonen dira abuztuaren 25era arte. Saharaztan elkartekoek dioten bezala «Saharar Herriaren enbaxadore-rik onenak iritsi zaizkigu. Mila esker. Sucram».



Saharako neska-mutikoak, harrera-familiekin Bertzen.

UTZITAKO ARGAZKIA

UZTAILAREN 3tik IRAILAREN 14ra


Julio Caro Baroja Museo Etnografikoko Berako piezen erakusketa. Erakusketaren inaugurazioa uztailaren 31n, 19:00etan. **Lekua** Berako Kultur Etxean. **Ordutegia** asteartetik igandera 10:00-14:00 eta 16:00-19:00. Astelehenetan (egun osoz) eta igande arratsaldez **Oharra** Berako bestetan bakarrik goizez irekia eta abuztuaren 3an, igandea, egun osoz itxia.

UZTAILAREN 26a LARUNBATA

16:00 3x3 Saskibaloi Txapelketa Herriko Solidarioa. Toki-Onako patioan (eguraldi txarra eginez gero Toki-Ona kiroldegian). Ateratako dirua Bortzirietako Guztiok elkartearentzat izanen da.

UZTAILAREN 27a IGANDEA

10:00 Txirrindularitza Proba. Berako XI. Saria. Kadete maila. **Ibilbidea:** Bera—Lesaka—Bera—Berrizaun—Bera—Berrizaun—Bera (helmuga Eztegarra pasealekuan). **16:00 3x3 Saskibaloi Elite Txapelketa.** Toki-Onako patioan (eguraldi txarra eginez gero, Toki-Ona kiroldegian).



UZTAILAREN 28a ASTELEHENA

20:00 Gaztefolk Bidasoaldeko Nazioarteko Gazteen Folklore Jaialdia. Eskolako frontoian. Flori de Tei (Moldavia), Yeralash Song and Dance Ensemble (Errusia) eta Eraiki Dantza Taldea (Irun, Euskal Herria).

ERREKALDE
Platerre, karkak, txakurak
Platerre
Ongi pasa bestaki!
TFnaka: 948 630 254 BERA

MEKANIZATUAK
Ongi pasa bestaki!
Zalain Ind., 9 - BERA
T./F. 948 63 11 67

GANIX
FIAT zerbitzua
948 63 06 69
Berrizaun, 6 BERA (NA)

SEGUROS BILBAO Ongi pasa bestaki!
Grupo CATALANA OCCIDENTE
Iriarte-Etxandi
artekaritza-aholkularitza
Kantimibena, 1 - BERA - 948 631 309 - Faxa: 948 630 383

AROZTEGI METALIKOA
CARPINTERIA METALICA
Ongi pasa bestaki!
Albarga Ind. Euzko 1 - 31780 LESAKA
T./F. 948 631 651
korta@korta.e.telefonica.net

KoToi
Kortinak
Estoreak
Etxerako
ehungintza
osagarriak
Bidasoa kanika 14 - 31780 Bera - T./F. 948 631 660
ongi pasa bestaki!

Luxia Ongi pasa bestaki!
ostatua - jatetxea
94863271 - Itzea Harria, 2 - BERA

BERA
Berako udalak
besta zoriontsuak
opa dizkizue
**GORA BERAKO
BESTAKI**



 **HORTZ-**
Klinika
Iker Ribisu Altolaguirre
Neurologo, Neurofisiólogo y Neurocirujano

Neurología y Neurocirugía
C/ San Sebastián 11, 48001 Leizor (Bizkaia)
Tfno. 948 631 631

**CARROCERIAS
ALZATE**

TXAPA eta PINTURA

Alkaiaga ind. Alasta, 4 - Tel: 948 630 373 - BERA

SUKALDERAKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTZOIAK

BORTZIRI
UNION ANIAK

Erakusketa: Berea Etxea | LESAKA | Nafarroa
T. 948637266 | M. 607226891 | F. 948637511
bortzirialtzari@telefonica.net

FOTO-ENGELZINK
GOIKO *engiz poto*

Ahate, 32 - BERA
Tfona: 948 430 505
Mugilarria: 609 643 177
fotogoiuko@fotogoiuko.com



ONGI PASA
HERRIKO BESTAKI



errandonea
EDARIAK

Ziobi 11, Alkaiaga Industriaidea.
31789 BERA Tel. 948 630 982

**ZENTRU
LOGOPEDIKO-PEDAGOGIKOA**
Nekane Ordoki Gonzalez

- ✶ Ahazkapen zailtasuna
(*"ama" guzaki ezazu, "nasa" a...)*
- ✶ Guzuzak kontatzeko zailtasuna
- ✶ Irakurketa arazoak
- ✶ Idazketa arazoak
- ✶ Toteltasuna *"tartamudea"*
- ✶ Ahots arazoak
- ✶ Arnasketa arazoak

Euskara/Euskara

**646 894 332
BERA**

exp. para hotel!

FONTANERIA



Carlos Pacheco

C/Laguna nº 19
31760 BERA (Navarra)

Telefono: 637 15 11 70

 **Ekindarra**

ENERGIA
BERRIZTAGARRIAK

ENDEZTEKUNA ETA KONTSUMO-IRAILKORRA

 **SOLVIS**

INSTALAZIOEN
BERRIZTAKUNTZA

www.ekindarra.com
ekindarra@ekindarra.com
tel. 65 206 3220
31780 Ibaeta

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- 🔹 Langile autonomoak
- 🔹 Nekazariak eta mendi langileak
- 🔹 Nominak eta Aseguro Sozialak
- 🔹 Lan-Kontratutarako laguntzak
- 🔹 Enpresa berri ezberdinen sortzea
- 🔹 Diru-laguntza ezberdinak
- 🔹 Kontabilitateak
- 🔹 IVA eta IRPF
- 🔹 Errenta aitortpenak
- 🔹 Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- 🔹 Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

ONGI PASA BESTAK

LESAKA: Eltzeta 20 beheak
Tlf./Fax 948637050
BURLATA: La Viña, 4
Tel. 948 133 328 - Faxa: 948 133 713
amala@artekari.com



VENTA GORRA

OSTATUA - JATETXEA
Menua | Karta

KAFETEGIA - OROIGARRIAK
AUTOZERBITZUA

Besta zoriensuak igaro!

lbaridingo gaina | BERA
Tel.: 0034 948630729

eh
HOTEL **churrut**
...
Churrut
hoteleko
jatetxea
(LENKONEA)

BERAKO BESTETAKO DASTATZEKO MENUA
(Plater hauak guztiak sartzen dira menuan)

Ahate entsalada epela fruitu lehor eta gazta-trigorkiarekin
Txampi eta perretikoz betetako etxeko hostonea foie saltsarekin,
Mariskoz betetako legatza amerikarrarekin,
Iberiko-masailak ardo beltzezko saltsarekin
Etxeko askotariko gozoak.
Ardoak: Nafarroako JD, kafea eta BEZ barne.

PREZIOA: 30€
T. 948 625 540 / 948 625 542
Foruen plaza | BERA
www.hotelchurrut.com

ABUZTUAREN 1a ORTZIRALA

13:00 San Jose zahar etxeko familia bazkaria. **17:00** Scoot erakustaldia (HS2) Eztegar pilotalekuan. Ekarri zure scoota. **19:00** Gaztexteban igoera. Pregoia, bertsoak eta txalaparta. **19:30** Kontzertua: **Joseba B. Lenoir eta Felix Buff** Altzateko plazan. **20:00** Gure Txokoa Dantza Taldearen jaialdia Herriko Etxeko plazan. **22:30** I. Berako Gau Lasterketa. **00:00** Kontzertuak: **Ufestuek eta Horma** Altzateko plazan. **On-dotik** herriko DJak txosnetan.



ABUZTUAREN 2a LARUNBATA

10:00 Herri gosaria txosnetan. **12:00** **Al-txaferoa** eta ezkil-jotzea. Aldi berean, ttikiendako goxokiak. **On-dotik Erraldoiak eta buruhandiak** karrikaz karrika, Incansables Txarangak eta Ezpelur gaiteroek lagunduta. **14:30** **Herri Bazkaria** Herriko Etxeko plazan (txartelak salgai Errekalde eta Xuga ostatueta). **16:30** **Plater tiroketa**, minifoso modalitatean. Bera eta kanpotik etorritako tiratzaileen txapelketa. **17:00** Herriko pilotarien **pilota partidak**: benjaminak, alebinak, infantilak eta helduak. **17:00** Ezpelur gaiteroak San Jose zahar etxean. **17:00** **Scooter tailerra** Eztegar pilotalekuan. **18:00** **Kuadrilen jautsiera** plazatik plazara. **18:30** **Kukaña** Illekuetan, Incansables Txarangak alaiturik. **19:00** Kontzertua: **Tajon Prieto y los kuajalotes** Altzateko plazan. **19:00** Berako txistularien kalejira Illekuetatik herriko plazara. **21:00** Dantza herrikoiak Altzateko karrikan. **00:00** Kontzertuak: **Elkano Browning Cream** eta talde sorpresa Altzateko plazan.



Pizzio
tabako-denda 2. zbk
ongi pasa bestak!
Alzate, 26 • Tel. 948 630 788 • 31780 Bera

MANUEL LANZ
SAHOLKULARITZA
ongi pasa bestak!
Eztegara, 22 • 1. Esk. 948 631 108 BERA

GORA SAN ESTEBAN!
borzond
948 631 521
material gutxiesten inprimatzen dugun
hemisferio 2. apartekoan artikulatzen

besta zoriontsuak opa dizkizuegu
Botxo
ibaigogortza@hotmail.com • 948 630 052

ARTIEDA ESTANKOA
Estanco Nº 3
Cave de Puros
ongi pasa bestak!
Alzate, 26 • Tel. 948 631 521
Fax: 948 631 521
www.artiedaestancoa.com

elika
Dietetika... elikadura
ONGI PASA BESTAK
IXIAR ANDUEZA LANZ
Dietista-Nutrizionista
Kolegiatu zenbaki NA221
Itza, 6 behe 31780 BERA
948 631 283 645 708 512
elikaiberia@hotmail.com

Artieda M.
LENTZERIA • MERTZERIA
ONGI PASA BESTAK!
Kantionberri 2 • BERA • 948 625 411

Arturo
Arropak • Etxerako osagaiak • Lentzeria • Mertzeria
ABUZTUAK 4, 5 ETA 6 ITXIA
BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU
Alzate, 20 BERA T. 948 630 136

udana
salazones
Importazioko
bahiak, gaztuen,
gaztuen eta kongelatuak
Alkaiaga Ind. • Lesaka • T. 948 631 536 • F. 948 631 550

BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!



BIOK LAPITXURI XABI
ARROPA DENDAK

Udazkeneko
kolekzio berrian

%25-eko

deskontua kupoi honekin
irailaren 30-era arte



Eskeintza hau ez da beste eskaintzekin bateragarria

IBARDIN • DANTXARINEA • VALCARLOS



ABUZTUAREN 3a IGANDEA

09:30 Herriko txistulariekin diana; Ezpelur gaiteroak herrian barna. **10:30** Udalbatza, txistulariak, makil dantzariak eta Berako bandera aitzinean dutela, Herriko Etxetik San Esteban elizara abiatuko dira, Esteban Donearen ohoretan eta Berako abesbatzak lagundurik emanen den Meza Nagusia aditzera. **Ondotik** Gure Txokoa Dantza Taldeko kideek **Berako Makil dantzak eta Bordon dantza** dantzatuko dute txistularien laguntzaz. **Ondotik** Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsolariek kantatuko dute.



13:00 Ezpelur gaiteroak Ibardinen. **17:00** Incansables Txarangak San Jose zahar etxean joko du. **18:00** Gure Txokoa Dantza Taldeak **Berako Aurreskua** dantzatuko du Herriko Etxeko Plazan txistularien laguntzaz. **Ondotik** **Berako Bandaren kontzertua** Herriko Etxeko plazan. **21:00** **Dantza herrikoia** Altzateko karrikan Ezpelur gaiteroen laguntzarekin. **00:00** **Su artifizialak** Matzadako futbol zelaitik, Oscense Pirotekniaren eskutik (Huesca). **00:20** **DANBA** Taldearen kontzertua Altzateko plazan. **Ondotik** herriko DJak txosnetan. **Egunean zehar** Incansables Txaranga karriketan.



ongi pasa bestak!

Frutas y Verduras
BERANDONEA, S.L.
PASEO DE LA NARRAGAN

BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 • atea 21-22 • 31780 BERA

ONGI PASA BESTAK!

ARIN
Allianz ASEGURUAK

Ezlegara, 26 • BERA • T 948 625 259 • F 948 625 264
Panokia, 21 • DONEZTEBE • T 948 450 266 • F 948 450 617

Semper autoeskola

ESKAINITZA BEREZIAKI!
Ikastaro teorikoa
nahiz praktikoa
euskara!

- INFORMATU ZAITEZ -

Eztegara pasealekua, 26
BERA
T. 948 630 298
e-posta: semperautoeskola@gmail.com
ongi pasa bestak!

Plaza Berria, 7
LESACA
T. 948 638 299

ongi pasa bestak!

BIZIKLETA
SALMENTA ETA
KONPONKETA

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA

KATEA-BIKE



LABIAGA
eraikuntzak

GREMIOEN KOORDINAZIOA

IMANOL 608 117 634
XATUR 608 117 635

Ongi pasa bestak!

BERA | ELIZONDO

Alberto RETEGI
abokatua

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

ERROTARZAR
harategia

Bertako
produktuak

www.errotaizarharategia.com

Eztegara, 3 · BERA · T. 948 630 068 · F. 948 631 057
e-posta: errotaizar@telefonica.net

Halcon bidaiak.com

948 630 451

ONGI PASA BESTAK!

Illekueta, 1 · 31780 Bera · Nafarroa

Kalash
JUVENIAK

Kantimberri, 6 | BERA | 948 630 751
Merkatarien K. 7 | DONEZTEBE | 948 451 519

Javier Manterola
Tehniko instalatzailea

- iturgintza
- gasa
- berokuntza

© 629 449682
Itarlandeta 4, behea · BERA

IZARRA BENTA

ibordingo gaina
Tel.: 948 631 319

BERA

Urdi Bera
KIROL ZERBITZUAK

Ongi pasa bestak!

Kirol bulegoa: 948 630 215 · bera@urdisi.com

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masajeak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- Presoterapia
- METODO BERRIA:
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea · Tel-Fax: 948 625206 · BERA
Colon Pas. 6 - atzea · Tel-Fax: 943 633050 · IRUN

LABE ZAR

Eztegara, 18
948 631 076 · BERA

PASA ITZAZUE BESTA ON BATZUKI

MALE-REKA *atope!!*

ARROPA ETA OSAGARRI PERTSONALIZATUAK

KIROL-ARROPA LANEKO ARROPA KAMISETAK TXAPELAK PAÑULUAK BORDATUAK

Nagusia, 1 · DONEZTEBE · 948 451 571 · 636 885 190 · male-reka@male-reka.com · Male-Reka

ABUZTUAREN 4a ASTELEHENA

09:00 Musika Eskolako trikitilari eta panderojoleak Dornakun, Ezpelur gaiteroak Zalain auzoan eta Irats taldea Suspeletikin. **10:00** Plater tiroketa, ehiza ibilaldia modalitatean. Beratarrentzat. **11:30** Berako igerilekuan **haur eta gazteentzat XXVII. Igeriket Txapelketa**. **12:30** Erraldoiak eta buruhandiak Ezpelur gaiteroen laguntzarekin



Agerran. **13:00** Kukaña, Illekuetan. **14:00** Gaztetxe bazkaria Altzateko plazan. **17:00** Incansables Txaranga San Jose zahar etxean. **18:00** **Pilotari profesionalen arteko partidak** Eztegar pilotalekuan. Aspeko punta-puntako pilotariak. Sarrerak 25 eurotan Agara prentsan eta Zalain jatetxean. **18:00** **Haurrentzako ikuskizuna** eskolako pilotalekuan: **Arkakusoaren zirkoa**. **21:00** Dantza herrikoiak Ezpelur Gaiteroekin Altzateko karrikan. **Ondotik Suzko zezena** Altzateko karrikan. **00:00** Kontzertua: Zezenaren Taldea eta Revolutionary Brothers Altzateko plazan. **01:00** Enzerrio txosnetatik hasita **Ondotik** herriko DJak txosnetan. **Egunean zehar** Incansables Txaranga karrikaz karrika.



SMAZIZIOR edariak
T. 948 631 557
Ziobi, 3 ALKAIAGA
maziziorsenper@gmail.com
EDARIEN eta JANARIEN SALMENTA eta BANAKETA

sarobe
gastategia-ukindaga
17 de Artagara 25 baxo 1.948 63 06 47
34780 berak@navarra.es
www.sarobe.net

Jorge Sopena Colombero
ODONTOLOGO
Colegiado 223
Itzea, 1-1º 31780 BERA
T. 948 63 06 47
Ordu: jusea bestak!

Iñaki TAXIA
UGARTEMENDIA
T. 948 630 606 - 659 498 995
Alzate, 23 - 1.º - BERA

F. LANCHAS
Akutelaforma eta hermitzazalea
Parket eta parket flotatzalea
Jartzea
Eta gurtietako zolak
Tel: 948 630 735 M. 607 406 781

ITURRIONDO
ZURGINDEGIA
ZURGIN LANAK OROKORREAN
T/F. 948 631 430 • M. 607 890 923 • 607 890 966
Zalain ind. 7 • BERA

ORDOKI
GIZONEZKO ILEKAPAINDEGIA
ONGI PASA BESTAK!
T. 637 40 83 20 • Kanttonberri, 4 • BERA

Pinturas  **Pikabea**
Molinero

Prezio eskaintza zabala esmalte eta pintura plastikoetan
2.000 kolore desberdin lortzen dituen makina

Aurrekontuak konpromisorik gabe, fatxada, komunitate eta etxebizitza partikularretan

Zalain auzoa (Zalain Transformados fabrikaren parean) • BERA

T. 948 630 240 • M. 627 622 333

ONGI PASA BESTAK!

BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!



IDOIA PERFUMERIAS
IBARDIN • DANTXARINEA • VALCARLOS

KUPOI
HONEKIN...



IDOIA PERFUMERIAS
Irailaren 30-era arte,
Eskeintze hau ez da besta
eskeintzekin bateragarria.



ABUZTUAREN 5a ASTEARTEA

09:00 Musika Eskolako trikitilari eta panderojoleak Suspelan ariko dira, Ezpelur gaiteroak Kaule auzoan eta Incansables Txaranga Garaitarretan. **10:00** **Plater tiroketa**, ehiza ibilaldia modalitatean. Beratarrentzat. **Ondotik** gosaria. **11:00-13:30** **Puzgarriak** Eztegar pilotalekuan. **12:30** Erraldioak eta buruhandiak Altzatetik Herriko Etxera, Ezpelur gaiteroek lagunduta. Haurrentzako karamelok. Agurra Erraldio eta Buruhandiei Herriko Etxeko plazan. **13:00** **Kukaña**, Illekuetan. **14:00** **Kantu bazkaria** eskolako pilotalekuan. **16:00-18:30** Puzgarriak Eztegar pilotalekuan. **18:00** **Kukaña**, Illekuetan. **19:00** **Bera kantari** Illekuetatik Mukixura. **19:00** **Idi probak** Matzada karrikan. **21:00**

Dantza herrikoiak Ezpelur gaiteroekin Altzateko karrikan. **Ondotik** **Suzko zezena** Altzateko karrikan. **23:00** Dantzaldia Ki-ki Bordatxorekin Altzateko plazan. **Ondotik** herriko DJak txosnetan. **00:00** Gaz-texteban jautsiera (Gizajoa ni). **Egun osoan** Incansables Txaranga karrikaz karrika.



MARITX
Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450
Erakusketak, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

KSAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
T. 637 40 86 40 - 31780 BERA
andoni.matzakund@gmail.com
TDT instalazioak
TB instalazioak (satelite, kableak)
Instalazio indibidualak eta kolektiboak
Satelite bideko internetak
ONGI PASA BESTAKI

ONGI PASA BESTAKI
BIANDITZ
NEKAZARITZ ETXEA
Pentsilak • Porruak • Landareak • Abonak • Plastikoak
Fitosanitarioak • Patata haziak • Bolden plastikoak
Baserriko tresneria... etxeko zerbizuei
Zatzen ed. 5 • BERA | T. 600 977 339 | bianditzpentsilak@gmail.com

ZUBIONDO
Jatetxea
Agardutegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
Tel. 945 23 037

José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barrukoak eta fatxadak
tel. 666 235 466

PATXI MARITX taxi
689 616 662
ONGI PASA BESTAKI

Itxasoa hurbilago!
ONGI PASA BESTAKI
amalein
ARRAINDEGIA
948 630 981 • 620 828 757 • Itzea, 6 • BERA

ZELA KIROLAK
ONGI PASA BESTAKI
948 630 598
Alzate, 6 • BERA

IREKI LEIHOAK
Aluminio R.P.T / PVC | Pertsianak | Toldoak
Itxidurak | Kontraleihoak | Barandak | Berandak
ONGI PASA BESTAKI
T. 948 630962 F. 948 625400 H. 31780 BERA
irekileihoak@irekileihoak.com • www.irekileihoak.com



ongi pasa bestaki



**Oiartzabal
arkitektoak**

Ipar karrika, 15
31780 BERA
T. 948 630 304 • 627 955 349

UDAKO ETXEA
Benta - Ostalua - Jotetxeo



Larun - BERA
Tel.: 948 63 11 15
Tel.: 00 34 948 63 11 15 (Iparraldetik)

Ongi pasa bestaki!!

ongi
pasa
bestaki!



**TXOMIN IRAZOKI
FISIOTERAPEUTA**
MASAJEAK
BIZKORTZE ARIKETAK
ESKU TERAPIA

Eztegara, 28 behea • BERA | Parroikia, 7 • DONEZTEBE
948 631 391 • 670 471 200

BESTA ONAK PASAI!

OSTARGI OPTIKA
Bidasoa 8 BERA
948 630 753



HAMAIRETAKO ERAMATEKO JANARIA
ETXERA ERAMATEKO MENU OSOA 7etik HASITA
948 631 017



ONGI PASA BESTAKI

PIKABEA HARATEGIA
URDAITEGIA
948 631 284

Sara karrika, 7 • Agerra auzoa • BERA



SORKUNDE BENTA

Ongi pasa herriko bestaki!!

☎ 948 630724 • Ibardin • BERA

ELIZALDE bento
Ostalua | Jotetxeo

Besta on batzuk pasat!

948 631 024
Ibardin | BERA




xuga

tel. 948 631 519
www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera

Besta onak pasa!!!
EDARIAK



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 • 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.com



Legia, 21
BERA

Albaitaritza Klinika
ONGI PASA BESTAKI
Txertoak • Analisiak • Kirurgia
Pentsuak eta osagarriak
Zakurrendako ileapaindegia

Ordutegia:
11:00 - 13:00 / 17:00 - 20:00
Larunbatetan:
09:30 - 13:00

Tfnoa:
948 631 362 • 669 877 943



ugaldea
asesoria • aholkularitza

Rafa Pombar Sainz
aholkularitza fiskala-kontablea

ongi pasa bestaki!

Sara karrika, 1
31780 Bera
tel: 948 63 02 01
faxa: 948 63 02 55
e-mail: asesoria@ugaldea.com



DomoService
servizios, instalazioak eta mantentzeak

- Alarmak
- Bideo-zaintza
- Automatismoak
- Informatika
- Multimedia

Altzate 18 behea | BERA
T. 948 630 862 | 672 006 560
info@domoservice.es
www.domoservice.es

Ander ERRANDONEA | Berako pilotaria

«Kantxara ateratzean ez naiz urduri jartzen eta normalean %100 ematen dut»

Bortz edo sei urte baino ez zituenean jantzi zuen Ander Errandoneak pilotan «**ilusio haundia**» egin zion lehen txapela, Bortzirietako Txapelketan. «**Jokatu nuen lehen txapelketa izan zen**». Hamar urte baino gehiago pasatu direnean, txapelak jantzen segitzen du eta Nafarroako Herriartekoan lortu du azkena, Berako taldearekin. Duela 35 urte eskuratu zuen Berak azken aldiz txapel hori, eta tartean zen Anderren atea Inaxio. Orain semeak hartu dio lekukoa. Seniorretan aritu da Iñigo Martinez lagun duela, baina berez, lehen urteko jubenilak dira biak. Halere, arazorik gabe urte mordoska zaharrago izan dituzten aurkari guztiei irabazi diete.



Ander Errandonea.

Ez da denboraldi honetako bere txapel bakarria izan: 22 urtez azpikoetan Zaldibar eta Lezama-ko txapelketak irabazi ditu eta Euskal Herriko Txapelketan jubeniletan ere txapeldun izan da. Bistakoa da, attarengandik datorkiolako edo berezkoa duelako, pilota barrenetik bizi duela. 16 urterekin fin moldatzen da eta ez du gelditzeko asmorik. «**Pilotari guztiek bezala, profesionala ailegatzea dut amets**», nahiz eta «**urruti**» ikusi. Asperekin entrenamendu batzuk egin omen ditu, eta «**entrenatzen eta maila hobetzen**» segitzeko gogoz dago. Zer hobetua baduela dio: «**gantxoa eta botera lasaitasun gehiagorekin jo beharko nuke**», baina baditu aipatzeko ezaugarriak ere: «**bolea. Pilotari abiadura haundia ematen diot eta dejadak ere ongi botatzen ditut**». Attaren aholkuei kasu egiten ere saiatzen da: «**kantxara lasai ateratzeko erraten dit, dakidana eman eta aitzinean galtzeko beldurrik ez izateko, beldurrik ez duenak irabazten duela**». Dioenez, «**ez naiz inoiz urduri jartzen eta normalean %100 ematen dut**». Baina liburu artean ere ikusiko dugu udan Ander, irailerako utziak dituen ikasgaiak gainditzeko. Batxilergoko lehen maila egiten dihardu, eta gerora ez du ikasketak baztertzeko asmorik: «**kirolarekin lotuta ziklo bat egingen dut**». Hori bai, etxetik hurbil: «**hasieran Soin Hezkuntza (SHEE edo IVEF) egitea pentsatu nuen, baina hagitz urruti dago, aste osoa Gasteizen pasatu behar da. Etxetik hurbil nahiago dut, janari ona jan eta entrenamenduak hemen egin**». Ez da pilotara eta ikastera bakarrik mugatuko uda honetan, bestazalea ere badela erran baitigu. Ondoko egunetan partida baldin badu, ez dela ateratzen kontatu digu: «**serio hartu beharra dago**». Baina ahal duenean ez du aukerarik galtzen. Herriko bestetan ere ez da etxean geldituko. Ez egunez eta ez gauez ere. Eguneko ekitaldien artean, ziur gaude pilotari profesionalen partidetan ikusiko dugula, «**ez dut sekula hutsik egiten**». Eta gauez, berriz, lagunartean ibiliko da.

JASONE - GAZTEGIA

Besta gozo eta zoriontsuak opa dizkizuegu

Altzate, 10 - BERA - Tel: 948 630 786

Oinetako eta osagarriak

Ongi pasa bestak

Oinatz

Legia, 42 31780 BERA • T. 948 630 120

ELKAR

liburudenda

Testu liburuak
Aldizkariak eta prentsa
Eskolako materiala
Fax zerbitzua eta fotokopiak

Eztegara, 18 - T. 948 630 691 - BERA

Jaurrena

608 777 926
630 136 863
948 631 217
jaurrenabesa@gmail.com

Instalazio elektrikoak - Mantentze industrial
Ebitresak - Antenak - Sukaldeko altzarak

ETA ORAIN
DIGITAL PLUS DIGITAL+
ENERGIA ETA ARGIZAPENAREN EFIZIENTZIA AZTERKETAK

ONGI PASA BESTAK!

D

««««H I R U K I D E»»»»

Eguzki panelak «» Iturgintza
Industria mantenimendua «
Aire egokitua «

T./F. 948 625 395
Alkaiaga ind. • Alasta, 4-6 Behea • LESAKA

ONGI PASA BESTAK!!

Garbi ogi & coffee

KAFETEGIA - OKINDEGIA

TERRAZA
IZOZKI BEREZIAK
ETXEKO BATIDOAK
APERITIBOAK (pintxoak, ardoak, garagardoa...)

07:30-13:30 / 17:00-21:30era.
Asteazken arratsaldetan itxita.


Iturlandeta, 6 - BERA - 948 625 673

Zalain

JATETXEA RESTAURANTE

BESTETAN LASAI IBILTEKO
GARRAIO ZERBITZUA ESKAINTZEN DUGU
21:00-01:00
TXUPINAZO EGUNEAN EGUERDIAN ERE

Zalain Auttoa z/g 31780 Bera - Nafarroa
T. 948 631 106 w. www.zalain.com



BIOK

BIOK SUPERMERCADO
Venta BIOK, Alto de Ibañeta
31780 Bera, Navarra
948 631 451
www.bentabiok.com



ARGAZKIA: ASIER GOGORTZA
Borrokan taldea.

BORROKAN | Berako musika taldea

«Entzutea gustatuko litzaugukeen musika egitea da gure helburua»

Musikak baino zerbait gehiagok batzen ditu Borrokan taldeko kideak, hoguei urtetik gorako historiaren ondotik, oraindik ere maite duten hori egiten segitzen baitute elkarrekin. Mikel Lertxundi (bateria), Joseba Lertxundi (ahotsa), Iñaki Irtatzoki (gitarra), Ibai Gogortza (gitarra, saxofoia eta ahotsa) eta Iñigo Telletxea (baxua) dira taldearen muina. Kontatu digutenez, «**umeak ginenean Zalain auzoko lagun batzuk zartagin eta bidoiekin bateria moduko instrumentuak egiten eta jotzen hasi ginen**». Hura izan zen abiapuntua eta «**poliki-poliki**» taldea sortu zuten. «**Orduan mundu bat genuen deskubritzeko, erronka berriak jartzen genizkion gure buruari eta elkarrekin ikasten genuen. Oraindik ere izpiritu hori mantentzen saiatzen gara**». Garai haiekin alderatuz, ordea, «**orain, ez dugu lehen genuen denbora guztia eta jotzeko esfortzu haundiagoa egin behar dugu**». Musikaren inguruan, berriz, zera azaldu digute: «**abesti berri bat egiten dugun bakoitzean beti zerbait berria bilatu izan dugu, lehendik inoiz entzun ez dugun zerbait sortzea. Gure ustez, gure musika konstanteki aldatzen joan da, eta horrek aunitz motibatzen gaitu. Halere, izaten ahal da hainbertze urtez elkarrekin joz eta elkarrekin ikastearen poderioz musika egiteko modu berezi bat sortu izana**».

Taula gainera igo gabe bi urte pasatu dituzte, aurten kaleratu duten *Zuak* diska prestatzen: «**2012an hilabete batez grabatu genuen, eta denbora bat eman genuen nahasketak hasi baino lehen. Hortik aitzinera, guztia gibelera joan zaigu. Erotzeko modukoa izan da, baina pozik gaude emaitzarekin, edo behintzat lasaitu ederra hartu dugu**». Momentu horiek gibelean utzita, orain esku artean dute *Zuak*. Zazpi abestiko lana da: «**giro ezberdinak proposatzen dituzten abestiak dira orokorrean. Pasarte lasaiak eta zakarrak, geldoak eta dantzagarriak... Bidaia tiki bat bezala definitu daiteke**». Kataku ostatuan edo webgunetik eros daiteke: www.ertza.net/borrokan/info. Argi dute euren «**ez dela jendetza mugituko duen musika mota, baina gure helburua ez da inoiz ahalik eta jende gehienari gustatzea izan. Entzutea gustatuko litzaugukeen musika egitea da helburua**». Edozein moduz, kontzertuetan «**sorpresa politak**» hartu omen dituzte azken urteotan: «**jendea espresuki gure kontzertura hurbildu eta ondotik diskak erosten ikusiz**». Zerbaiten seinale da kontzertuak emateko gero eta toki gehiagotik deitzea... Udako oporren ondotik, irailean itzuliko dira taula gainera.

Ongi pasa bestaki

TELEFLORA

Axalea

Alfzate 26 | BERA | 948 631 121

froling

Alemanian gehien saltzen den egurrezko galdara

Elorri gure erakusketa ikustera:
Bidasoa Karrika, 45 - BERA
PATXI MUTUBERRIA (TURRIA)
684 23 52 30 - patximutuberr@hotmail.com

ZELAIETA

tabakodenda

egunkariak, aldizkariak...
Iruindola • BERA • 948 631 246

ONGI PASA BESTAK

INSTALACIONES INSTALAZIOAK

INDARRI

ONGI PASA BESTAKI

HOTZ KOMERTZIALA
ETA INDUSTRIALA
AIRE GIROTUA

639 103 305
Ziobi, 13
31789 LESAKA

BERATARRA

ERAIKUNTZAK

Leitzako b. 66 - 8. blokea 2C
DONEZTEBE

Jose Ignacio Maritorena Larralde
670 489 337

ONGI PASA BESTAK

BAZAR

the cotté

Kanitonberr 5 BERA
Tel. 948 625 285

ONGI PASA BESTAKI

UDARAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

M^aJESUS HARATEGIA
ONGI PASA BESTAKI
Etxean egindako txistorrak, birinak,
salltxinak eta hamburgesak
ZONALDEKO KALITATEZKO HARAGIA
Kamika Nagusia, 11 - SUNBILLA - T. 948 451 530

larreta ongi pasa bestak!
IGELTSU PROIEKTATUA - PLADUR LANAK
Belduza kalea 36 - 37010 Iruia - Nafarroa
larretaigeltsu@gmail.com
627.225.514 - 637.921.299

MARISOL ONGI PASA BESTAK
JANDRI - JENDIA
Kale Nagusia 7, 31700 SUNBILLA (T. 948450606)

IRURI MOTOR
Aukerako autoak
Turismo eta furgoneten solmenta
4x4 autoetan modelo guztiak | Salerosketa zerbitzua
ONGI PASA BESTAKI
T. 948 450 399 - 620 950 687
Iruia-ko errep. zaharra | SUNBILLA

Zurgin lanak orokorrean
Luis Ibarra
636 701 204
690 388 263
luisibarra@cholmail.es
Salbatore karrika, 28 - ARANTZA

Armarriak
Lehoak
Areak
Teilatu berriak
Parke flotantea
Tarima
Teilatu zaharberitzeak
ongi pasa bestak

GAZMENDI
ERAIKUNTZAK
ongi pasa bestak!
DONIBANE KARRIKA
GURE BORDA - SUNBILLA
T. 948 450 130 - 948 451 666
M. 619 469 784



ABUZTUAREN 9a LARUNBATA

17:00 Trikitixa emanaldia herrian barna, Mendaur trikitixa eskolaren eskutik. **18:00 Giza proba.** **19:30** Kontzertua: La Jodedera taldea plazan. **Bitartean** Taloak eta sagardoa plazan. **00:00** Oharkabe taldearekin gaupasa.

ABUZTUAREN 10a IGANDEA BEZPERA

12:00 Suziria Herriko Etxetik, erraldoi, buruhandi, gaitero eta txarangak alaiturik. **18:30 XII. Ramon Latasa Saria.** **21:30** Baztan zopak Ulibeltzak elkartean. **Gauetz** dantzaldia Oharkabe taldearekin.



ABUZTUAREN 11 ASTELEHENA TIBURTZIO DEUNAREN EGUNA

09:30 Diana gaiteroekin. **11:00** Meza Nagusia. **12:15** Sunbillako dantzarien emanaldia eta ondotik luntxa plazan. **18:30** Pilota partidak. **Arratsalde eta gauetz** dantzaldia Aierrik taldearekin. **22:30 Su artifizialak** Pirotecnica Oscense-ren eskutik. **Ondotik** pintxo dastaketa eta 200 litroko sagardo kupela.



SUNBILLAKO UDALAK
Besta zoriontsuak opa dizkizue
sumbildar eta bistari guztioi
GORA SAN TIBURTZIO!

Bustitz
ostatu-jatetxea
Rozibak - Bokata
Egunero Menu
ONGI PASA BESTAK
948 627 955 - SUNBILLA
www.bustitzostatua.com

ABUZTUAREN 12a ASTEARTEA HAURREN EGUNA

09:30 Diana. 11:30-13:00/16:30-19:00 Jokulandia. 19:30-20:00 Tortilla eta postre lehiaketa. Etxean prestatu eta bertan dastatu! **Arratsalde eta gauzez** dantzaldia Txingudi DJ-aren eskutik. **Ondotik Karaokea.**



ABUZTUAREN 13a ASTEAZKENA GAZTEEN EGUNA

09:30 Diana. 10:00 Herri Krosa Ulibeltzak Elkartetik hasita. **Goiz eta arratsaldez** tren txutxua herrian barna. 14:30 Kuadrillen bazkaria Ulibeltzak elkartearen. **Ondotik** ura-ura txarangak alaiturik. **Ondotik Toka eta zartain tiroketa.** **Arratsalde eta gauzez** dantzaldia Tirry&Tery Dj-arekin.



ABUZTUAREN 14a ORTZEGUNA EZKONDUEN EGUNA

09:30 Diana. 10:00 Mus txapelketa. 16:00 Plater tiroketa. 17:00-19:00 Haurrentzako jokoak. Txaranga ibiliko da herria girotzen. 22:00 Herri afaria. **Arratsalde eta gauzez** dantzaldia Gabenara taldearekin.

ELTZORI
MENDI LANAK
EGUR ATERTZEAK
ESKARAZIOAK
GARRAIOAK
GABITZE MEKANIKOAK
ITXOTURAK
SU EGURRA ETA
PIKETEAK SALGAI

Leku eder, busto - 31791 SUNBILLA
altzariak@eltzori.es - Tel. 948 450 504
M. 659 867 287 - 659 481 394

SASOI
eraikuntzak s.l.
Leku eder, S. 31791 SUNBILLA
T. 948 451 506 F. 948 450 108
info@sasoi.es
ONGI PASA BESTAK

Lizun
GAZTANDEGIA
ONGI PASA BESTAK!
Sunbilla - Tel: 948 450 862

aurrerakada
lan bertikalak
(andamiorik gabe)
Margo larri
Fotodun konpainiak
Aburua egiten den edozein lan
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
www.aurrerakada.com
616 413 660 Donibane kalea, 18
Sunbilla 31791 Nafarroa

JAVIER IBARRA
ERAIKUNTZAK
Gremioen koordinazioa
699 122 815
31791 - Sunbilla
Nafarroa
ONGI PASA BESTAK!

SUNBILLAKO TAXIA
8 plaza + txoferra
633 466 486 Airtea
ONGI PASA BESTAK!

ARIZTIGAIN
CAMPING - KAMPING
31791 SUNBILLA
948 450 540 | 607 446 909 - 607 988 249
info@campingariztigain.com
www.campingariztigain.com

OSPAKIZUNETARAKO MENU BEREZIAK
pinbroak | rajioak | bokata | hamburgesak | sandwich-ak
menuak | plater konbinatuak | karta

Aliprox

Unibertsitateko, Enpresa, Enpresa, Enpresa, Enpresa

Tel: 948 510 007 - 948 610 657
Elbarren, 20-71

ongi pasa bestak!!

KIDE aholkularitza

KONTABILITATEA | ZERBATA | AUTONOMIAK | ENPRESEN KORRIKAK
AUTODEN TRANSFERENTZIA | ERRENTA AKTORIENAK
AHOULKULARITZA JURIDIKOA | NOBIAK, KONTRATUAK

LEITZA - Landa Rte. Saso 3 • T: 948 510 950 F: 948 510 435
DONOSTIA - Urbeta 80 - 1. aldea • T: 943 42 03 48 F: 943 44 18 38
info@kide.coop | www.kide.coop

ongi pasa bestak!!

AiNART ELBARRINEN, 67 - behea
LEITZA - 948 510 197

ONGI PASA BESTAK!!

Olaia Bazar

LOREAK, IMPERTEGIA, JOETALAK, HERRAIBETAK, ETXEN TRESNAK, JANTZAK, GASTROLOGIA, PESTAKUAK

ONGI PASA BESTAK!!

LEITZA - Landabehaga, 3 • 948 510 437

edr' gunea Ainhua Azpiras Estefanía

Lanera • Sokalera • Dendakera • Hekikidera • Begien adierazera
Auzpegiak • Biderakera • Gogotzako • Biderakera • Gogotzako

Elbarren 67 behea • LEITZA • T 948 510 273 • edrgunea@yaho.es

DENAUTO SAGASPER
Tailerra

ongi pasa bestak
AUTO KONPONKETA

Elusader Ind. • ARESO • T 948 510 610 • F 948 510 917

gastelu scl iturgintza

kalefakzioa • saneamendua • gasa

Tlfnoa: 948 510 086 • 948 510 156
Faxa: 948 510 856
LEITZA

ONGI PASA BESTAK!!

EZKAIN eraikuntzak S.L.

ongi pasa bestak!!

Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T/F. 948 610 956 • 948 610 956
ezkain1@gmail.com



Eneko ZABALETA RENTERIA | Leitzako gaztea

«Erlojua etxean utzi eta gorputzak agintzen du, esnatutakoan dutxa hotz bat hartu eta berriz juergara!»

«Gogotsu eta umore onez» bizi ohi ditu Enekok Santiburtzioak. Abuztuaren 10ean hasiko dira ofizialki, baina urtero bezalaxe, reparto egunean «giroan sartzen hasteko» aukera ez du alferrik galduko. Segidan etorriko dira besteak, pesta aurreko indepentzia egunean hasi eta abuztuaren 15era bitarte, «erlojua etxean utzi eta gorputzak agintzen» baitu. Hala, egun bateko pesta, hurrengoarekin lotu eta «oraindik erretiratu gabe, entzierroan ateratzen gara. Zenezetan pixko bat ibili, ederki gosalduta eta gero joaten gara lotara».

Kabian indarrak berriro orduko, hegaldi berri baterako prest izaten da gautxoria, «dutxa hotz bat hartu eta berriz juergara!».

Txupinazoa lehortu ondoko bost egunetan: kuadrilen arteko joku eta bazkaria, txarangaren erritmora egindako dantzak, herri afaria, dantzarien saioak, parrandak, zenezak eta hamaiketako itxurako gosariak... horixe da Enekok bizi dituen pesten laburpena. Ekitaldi guztietan nabari dira bere ustez «herriarrek jartzen dituzten pestarako gogo eta indarrak. Leitzako pestak berezi, bertako herriarrek egiten dituzte!».

Abuztuaren 10 eta 11 ditu egunak gustukoenak, pesta hasiera izanik «nik uste denok ere egun horiek gogo eta indar haundiekin hartzen ditugula». Tartean, «Ezpata dantza» azpimarratzen du, «herriko plaza bete eta denak txaloka ikusita... oilo pikorrak jartzen zaizkit pentsatze hutsarekin!». Leitzar gehienek, emozio handiz bizi duten emanaldia da, eta berak barru barrutik bizi izan du gainera, jantzi zuriak soinean, denen aurrean dantzatu izan baitu «dantzari gazte gaztetatik hasi nintzen 14 bat urte nituenean, baina duela hiru urte utzi nuen. Pena ikaragarrie daukat utzi izanaz, geneukan giroa ezin hobea zelako». Dantzan hasi eta urte gutxira egin zen Aurrera Elkarteko kide eta orain futbol taldeko partaide ere bada «berez ez daukat futbolerako halako afizio handirik, baina urtean zehar, kirol pixka bat egin eta aparta eta juerga eder batzuk botatzeko aitzakia da».

Pestak bukatzean lasaitasun bila joan ohi da ihesi «herria hilik nola gelditzen den maleta arropaz bete eta berdina dit nora, baina lasai eta eguraldi onaren bila joaten naiz». Bukatzeko, ingurukoei ere egin die bertaratzeko gonbidapena, «egun eta parranda ederrek direlako», hori bai etorri prest, bai baitirudi aurtengo hegaldia ere luzea izanen dela.



Eneko Zabaleta leitzarra.

ASTIZ ANAIAK ZURGINDEGIA

ASTIZ ZURGINDEGIA

Klase guztietako egur lanak, ateak, leihoak, tarima, armairuak eta kristaldegia

Enborrak neurri guztietan zerrazten ditugu

948 610 606 • 948 510 285

TXOKO taberna

Pintxoak Otartekoak

ongi pasa bestak!!

Elbarren, 22
LEITZA
Tel: 948 510 227

LEITZAKO BESTAK 2014

tipi-ttapa | 619 zbk
2014.07.24

27



ABUZTUAREN 2a LARUNBATA REPARTO EGUNA

14:00 Eskalarien bazkaria Aurreran. **16:00** Auzoz auzo, **Plazaola** aldizkariaren **banaketa**; trikitilari, txistulari, akordeoiari eta gaiteroen laguntza.

ABUZTUAREN 3a IGANDEA UMEEN EGUNA

09:00 Diana txistulariekin. **10:00** Korporazio txikiak udal ordezkariekin gosalduko du. **11:00** **Umeen txupinazoa** Udaletxeko balkoitik. **Ondoren** Aurrerako Pilota Eskolako gazteak arituko dira plazan. **11:30-13:30** Puzgarriak eta jokoak. **14:00** Familien bazkari autogestionatua. **16:00-18:00** Puzgarriak eta jokoak. **18:30** Aurrerako dantzari txikien ikuskizuna eta **umeen ingurutxo irekia** plazan. **Ondoren** Gurgildun zezenak plazan. **20:00** Buruhaundiak. **20:00-00:00** Joxe Mendizabal orkestra gizona.



ABUZTUAREN 9a LARUNBATA INDEPENDENTZIA EGUNA

09:00 Txistularien diana. **11:00** Ekitaldi politikoa. **11:30** **Leitzako emakumezkoen harri-tira proba**. **12:00** Kuadrilen arteko herri kirolak plazan. **17:30** **Castellersa** Kataluiniatik. **19:00** **Kalejira berdea**. Independentziarantz doazen herriei bultzada eta babesa emateko ekitaldia. **20:00** Batukada **00:00** Kontzertua.

Arzallus
HARATEGIA
Teintoria eta artismo produktibak, etxeko artisa
Elbarren. 37 • LEITZA • Tel. 948 510 377

Eguzkitza
GOZOTEGIA
ONGI PASA BESTAK!
Elbarren • LEITZA
T. 948 510 041 • 948 510 646

FISIOETXEA
Ane Egizabal Llata
Fisioterapeuta
CPS-1834CINA • 826 kilogramo zentzio
Rikuntza ardurak: Kint eta Zirkulazio Menajio
Eskalar auzokidearengatik tratamendua
Eskalar auzokidearengatik tratamendua
Eskalar auzokidearengatik tratamendua
Huelte Gutzia, 9 3 C • LEITZA • Tel: 948 510 730

JAI-ALAI
hostala
ONGI PASA BESTAK!
Tfnoa: 948 510 735 • Faxa: 948 510 736
www.jai-alai.es • info@jai-alai.es

BEATRIZENEA
TABERNA-JATETXEA
menua • otartekoak • kaxuelitak • pintxoak
Mikel Deuna, 2 • Tel: 948 510 991 • LEITZA

AISLAN, s.l.
ONGI PASA BESTAK!
AISLAN-LEITZA, s.l.
618 915 943
Santa Lusia pasealekua, 4 B Behe • Butintxuri • IRIÑA
aislanleitza@yahoo.es

Lizarraga
ONGI PASA BESTAK!
"GUREA" KALITATE HARATEGIA
EUSKAL HERRIKO TXISTORRA
TXAPELKETAN 3 SARIAREN IRABAZLEA
Elbarren 71 • ALIPROX • 948 510 007 • LEITZA

ETXE TRESNAK S.L.
Elektrikariak,
Instalazio elektrikoak,
Telekomunikazioak
ONGI PASA BESTAK!
Elbarren, 45
LEITZA
948 510 181
948 510 208

TXARAGORRI
iturgintza
Tfnoa: 649 853 440
LEITZA

Leitza Garajea Multimarka
LEITZA GARAJEA
MULTIMARKA TAILERRA
STILH AGENTZIA
NEKAZARI TAILERRA
SALEROSKETA
ONGI PASA BESTAK!
Landa Industrialdea • LEITZA
948 510 466 • 948 510 404

Allianz 
ELKARLAN aseguratzaileak
PESTA ONAK PASA!
Elgoien, 53 • LEITZA
Tel./Faxa: 948 510 490
jone.alduntzin@allianzmed.es

- Autzoak, etxeak, komertzioak, R.C. bizi aseguratzaileak
- Pentsio planak
- Kotxe transferentziak

Eskatu aurrekontua inolako konpromiso gabe!

LEITZELARREA S.L.
Aroztegi eta Galdereria
ONGI PASA PESTAK!
Landa Beikoa Industrialdea, 20 • LEITZA
T. 948 510 598 M. 669 368 991

 **PERITZA TABERNA**
Mila esker antolatzaileei
PESTA ONAK PASA ETA TALITAKO EDEI
LEITZA • 948 610 848

ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA BULEGOA
Celia Lana Ranz, arkitektoa. COAVN 2827
Uhartetxe Goizina 7 • 31880 LEITZA T. 645 008 478

OLIVEIRA - VICENTE
eraikuntzak
ongi pasa pestak!
Amazabal, 17 • LEITZA • 629 418 431 • 606 307 810

Melo Pinturak
ongi pasa pestak!
T. 609 873 178
LEITZA



MAIMUR
Herriko Plaza
LEITZA
Ttxoa-Faxa:
948 510 146
ONGI PASA PESTAK!

- Prentsa • opariak • testu liburuak
- Plastifikatzaileak • enkuadernatzaileak
- Inprenta lanak • fotokopiak

 **LEIMEN S.L.**
Era guztietako elektrizitate lanak
LEITZA 628 725 396 Argoitx
MENDILLORRI 628 725 397 david
Jai zoriontsuak denoiz!



ABUZTUAREN 10a IGANDEA PESTA BEZPERA

12:00 Herri kirolak. 13:00 Elkartasun manifestazioa. **13:30** Jubilatuen bazkaria. **14:00** Herri bazkaria karrapean, musikaz alaiturik. **18:00 Txupinazoa** eta Plazaola Aldizkariko azalaren egileari saria. **Ondoren** Incansables Txaranga, txistulariak, erraldoiak, gaiteroak eta buruhaundiak herrian barrena kalejiran. **22:00 Suzko zezena. 23:00** Trikidantz taldearen emanaldia plazan. **01:00** Incansables txarangen erronda. **02:00** Dj-a Ateka-beltzen.



ABUZTUAREN II ASTELEHENA TIBURTZIO DONEAREN EGUNA

08:00 Diana txistulariekin. **09:00 Entzierroa eta behiak** plazan. **10:30** Meza ondoren hamaiketako irekia karrapean. **12:00** Aurrerako Ezpatadantzariak plazan. **Ondoren** Afizionatuen arteko pilota partidak. **13:00** Aurreratik Incansables txaranga aterako da. **18:00** Zezenak plazan. **19:00** Herri kirolak. **Ondoren** Goxokiak banatuko dira. **19:30** Incansables txaranga eta buruhaundiak. **21:00** Leitzako Ingurutxo nahi duen guztientzat. **22:00** Suzko zezena. **23:00** Joselu Anaiak taldea plazan. **23:30** Bakarriketa saioa Ateka-beltzen. **01:00** Incansables txarangen itzulua.



 **OGI BERRI**
ARTISANALAK
KAFETEGI
OKENDEGIA
948 610 974 | LEITZA



TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN
facebook
www.facebook.com/ttpi.ttapa
www.facebook.com/ttpi.net

LEITZAKO BESTAK 2014

ttipi-ttapa | 619 zbk
2014.07.24

29



ABUZTUAREN 12a ASTEARTEA

08:00 Diana txistulariekin. **09:00** Entzierroa eta behiak plazan. **12:00** Taldekako harri tira proba. **13:00** Umeentzako aparra plazan. **13:00** Aurreratik Incansables txaranga aterako da. **17:00** Aurrera atarian Leitzako bertso eskolako ena saioa. **19:00** Aurrerako dantzarien emanaldia plazan. **Ondoren** Goxokiak banatuko dira. **20:30** Incansables txaranga Aurreratik. **22:00** Suzko zezena. **22:00** Herri afaria. **01:00** Incansables txarangaren itzulia. **02:00** Zezenak plazan. **03:00** Ingurutxoak plazan.

ABUZTUAREN 13a ASTEAZKENA

08:00 Diana txistulariekin. **09:00** Entzierroa eta behiak plazan. **11:30** Pala partida. **12:30** Txakoli dastaketa eta sardin jatea. **13:00** Incansables txaranga karrapen. **17:00** Gaztetxoentzat futbol txapelketa eskolan. **17:30** Zezenak plazan. **18:30** Bertsolariak. **Ondoren** Goxokiak banatuko dira. **19:30** Incansables txaranga eta buruhaundiak. **19:30** Pilota partida profesionalak. **22:00** Suzko zezena. **23:00** Alaiki musika taldea plazan. **00:00** Musika Atekabeltzen.



ABUZTUAREN 14a OSTEGUNA

08:00 Diana txistulariekin. **09:00** Entzierroa eta behiak plazan. **12:00** Paella lehiaketa. **12:00** Konposteroak ikuskizuna umeentzat. **13:00** Incansables txaranga Aurreratik aterata. **18:00** Zezenak plazan. **Ondoren** Goxokiak banatuko dira. **19:00** Par cour akrobaziak eta batukada herritik barrena. **20:30** Incansables. **22:00** Suzko zezena. **23:00** Mc Onak eta Kolpatu musika taldeen kontzertua. **Ondoren** Dj-a Atekabeltzen. **01:00** Incansables.

ABUZTUAREN 15a OSTIRALA EZKONDU ETA BIKOTEEN EGUNA

08:00 Diana txistulariekin. **09:00** Entzierroa eta behiak plazan. **12:00** Herri kirolak plazan. **13:00** Incansables txarangaren erronda. **14:30** Aurrerako bazkideen bazkaria elkartean. **18:00** Bikote eta ezkonduen entzierroa eta zezenak plazan. **19:00** Ezkondu eta bikoteen Ingurutxoak plazan. **Ondoren** Incansables txaranga aterako da. **20:00** Patxi eta konpainia musika taldea plazan. **22:00** Suzko zezena. **23:30** La Jodedera taldea plazan. **01:30** Gaixoa ni Incansables txarangarekin.

Perurena harategia

Bertan egindako pentasarekin GORRITTENEA
baserrian gizenbidako TXEKORRAK saldan ditugu

Elbarren, 51 • Tinoa: 948 510 164 • LEITZA

SAGASTI
JATETXEA

ongi igaro pestak!

Elbarren, 98 • LEITZA • 948 610 637

• Ogi egin berria
• Pimosa, Goxari goxo goxo
(haranga zuku naturala,
croissant eta kafea)
• Pastak, Pastelak, Tartak
(Enkargatuak egun batek besterik)
• Izotzak

PESTA ONAK PASAI

ELBARREN 20 | LEITZA | 948 510 720

MUSUNZAR
OSTATU-JATETXEA

ONGI
PESK
PESTAK

facebook
twitter

Elbarren, 14
948 51 06 07
31880 LEITZA

www.musunzar.com

EXPLOTACIONES FORESTALES
ZUBILLAGA SARALEGUI, S.L.

Oihan aprobetxamenduak
Bertako eta kanpoko zur-biltegia
Egurra aireko kable bidez ateratzen dugu
Oihanberritze lanak
Zur-salmenta, eskabazioak, garraioa

Landa Ind. I eta II • LEITZA
Tinoa: 948 510 214 • Faxa: 948 510 841
M: 606 948 130 - 606 948 131
info@zubillagasaralegui.es

AMAIA
arraindegia

ongi pasa bestak!

Uharte Gotzaia • LEITZA
948 510 590

BERA

KIROLA → ABUZTUAREN 1EAN

Gau lasterketa antolatu du lehen aldiz Manttalek

7,4 kilometro luze eta 300 metroko desnibel positiboa izanen du

TTIPI-TTAPA

Berako lehenengo Gau lasterketa egingen da abuztuaren 1ean, ortziralarekin, Manttale mendiko lasterketa taldeak antolatua. Lasterketa herrikoiak 7,4 kilometro izanen ditu eta 300 metroko desnibel positiboa, eta Berako karriketatik eta inguruetatik pasako da ibilbidea. 22:30ean emanen zaio hasiera probari, Gure Txokoak antolatutako herri dantza ekitaldiaren ondoren.

Bi kategoriatan banatuko dira sailkapenak, (gizonezkoen absolutua eta emakumezkoen absolutua) eta gainera, bertze sailkapen bat izanen da peña edo koadrillentzako. Hauek hiru pertsonetako taldeak aurkeztu beharko dituzte eta lehenengo hiru koadrillek sariak izanen dituzte. 5 euro izanen da parte hartzea-

ren prezioa eta egunean bertan egingen da.

Ibilbideak errepidea eta Bera inguruko bidaxkak hartuko ditu eta hurrengo hau izanen da: Altxateko Parkea (irteera), Altxate karrika, Muxiku, Julio Caro Baroja karrika, Ugalzua, Matxada, Illekueta, Altxateko plaza, Altxate karrika, Legia, Herriko etxea plaza, Gernikako arbolak karrika, Xubixabal, Bidasoa karrika, Espidobaita (Kaxernara eskilaretatik igo), Kaxerna, Garmendiko Borda, Mitxinborda, Egurregi, Garakoetxeko Borda, Sarron, Lamixene, Illekueta, Altxateko Parkea (helmuga). Guztira 7,4 kilometro izanen dira, 300 metroko desnibel positiboarekin.

Manttale Taldeak 100 pertsonetan jarri du parte hartzaileen muga. Horretaz gain korrikalarietako frontala eraman behar dute derrigorrez, nahiz eta ibilbidea ongi seinalizatuta egon den argi eta zinta fluorescente bidez.

Alkaiaga Trail

Kirol kontuekin segituz, uztailaren 26ean jo-



UTZITAKO ARGAZKIA

Korrikalarietako frontala beharko dute lasterketan parte hartzeko.



UTZITAKO ARGAZKIA

35 urteren ondotik, berriz ere Herriarteko txapeldun

Kirol orrialdetan honen berri zabalagoa izanen duzue, baina ezin aipatu gabe utzi Berak Nafarroako Herriarteko pilota txapelketan lortutako garaipenak eta finalera mugitu zen herritar pila. Hiru autobus eta hainbat auto betez hurbildu ziren Labritera eta gero, bazkaria ere egin zuten herrian, egun bikaina borobiltzeko. Aspaldian ez zen horrelako giroa bizitu Herriarteko finalean.

katuko da Alkaiaga Trail lasterketaren bosgarren edizioa, Manttalek eta Alkaiagako besta batzordeak antolatua. Hirukotez osatutako taldeek erreleboka egin beharreko proba izanen da, eta guttienez neska batek parte hartu beharko du talde bakoitzean. Emakumezkoek 2,1 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute Meakako parajetik iraganda eta gizonezkoek berriz 3,1 kilometroko lasterketa Baldrun-Sorotik buelta eginez.

Lasterketa larunbat arratsaldeko 6etan izanen da helduentzat eta

aitzinetik gaztetxoentzako saioa izanen da, 17:30etik aitzinera. Gero herrikoia izaten du lasterketak, nahiz eta antolatzaileek kartelean txantxetan diotenez, «Munduko Mendi Koparako puntuagarria izanen da».

Izen ematea doan egin daiteke Zelaieta estankoa, Xugan, Pikabea harategian edo bertan egun berean. Proba ondotik, herri afaria egingen da. Txartelak salgai daude 10 euroren truke, egunean bertan Alkaiagan edo Pikabea harategian aldeztu aurretik txartela hartuta.

Enaitzen aldeko zozketa

Enaitz Gara taldearen ekimenez, merkatarien laguntzarekin osatutako hamar saskiren zozketa egin zen, baina saria eskuratzeko hilaletoko epea pasatu ondotik hiru saridun ez ziren agertu eta berriz egin dute zozketa.

11.033 (Iturenen saldua), 3.843 (Berako Botoxostuan saldua) eta 6.589 (Arizkongo Julenek saldua) dira zenbaki sarituak. Jabeek hilaletoko epea izanen dute aurkezteko, 637 920545 (Nagore) telefonora deituta.



6 SARRERA
ZOZKETATUTAKO
DITUGU
urtearen zehar

BERAKO IGIERILEKUA
Julio Caro Baroja 2
31.780 BERA
Tlf: 948 630 215





KULTURA → UZTAILAREN 19TIK ABUZTUAREN 31RA

Elias Garraldaren margolanak ikusgai daude Harriondoan

Komentuko elizan

Aitor AROTZENA

Elias Garralda zena-ren margo erakusketa ikusgai dago Harriondo Kultur Etxeko Komentuko elizan uztailaren 19tik abuztuaren 31ra. Asteazkenetik ortziralerara, 17:00etatik 20:00etara, larunbatean 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara eta igandetan 11:00etatik 14:00etara ikusteko aukera izan da.

Kultur teknikariaren ordezkapena

Amatasun-baja dela eta Belen Mutuberria kultur teknikariaren ordezkapena egiteko azterketetan Irantz Pastorrek lortu du puntuaziorik altuena. Hasiera batean 12 lagunek eman zuten izena, baina 3k bakarrik egin dituzte proba guztiak.

Bertze aldetik, Turismo Bulegoa Harriondo Kultur Etxean zabalik dago uztailaren 15etik irailaren 14ra, astearte-

tik larunbatera 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara eta igandetan 11:00etatik 14:00etara. Asteleheneretan itxia egonen da.

Elkartasun bazkaria

San Fermin erretiratu-en elkarteak elkartasun bazkaria antolatu du abuztuaren 17rako. Arratsaldeko 2etan izanen da egoitzan, honako menu honekin: tomate entsalada, patatak errioxar erara, saiheski errea eta letxuga entsalada eta sagar tarta, ura, ardoa, kafea eta likoreekin. Txartelak 22 euro ordainduz eskuratu daitezke abuztuaren 10a arte.

Balkoi loreduen lehiaketa

Lesakako Zerbitzu-en Elkarteak, Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz balkoi loreduen bigarren lehiaketa egiten ari da. Uztailaren 25ean jakinaraziko dituzte saridunak. Iaz bezala, 200, 150 eta 100 euroko sariak izanen dira hiru politenentzat.



Ba al zenekien


Foruzaingoak 70 droga-atzemate egin dituela Sanferminetan (iaz baino %30 guttiago) eta kartera ebasteagatik bi denuntzia bertzerik ez direla aurkeztu (2008an 20 izan ziren eta 2009an 10). Gezurrezko pistola bat eta suziri handi batzuk ere atzeman omen ditu Foruzaingoak.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Guttiago falta da 2015eko Sanferminetarako!

Rafael Eneterreagak eta Udalbiltzako zazpi herrialdeetako udal ordezkariak botatako txupinazo bereziarekin abiatu ziren Sanferminak. Arratsaldean, 150 dantzari bildu zituen Tantarumairu euskal folklore taldearen emanaldiak. Egun haundian, euri erauntsiaren azpian dantzatu behar izan zuten ezta padantzariak Zubigainekoa, baina arratsaldean Martxel Rodriguez aitzinesku berriak dantzatutako Aurrekua bikaina izan zen. Peñen eguneko tanborrada eta jautsiera jendetsuak izan ziren. Hondar egunetan ere izan zen berrikuntzarik. Honela, erraldi konpartsa berria atera zen umeen eguneko tanborradan eta erraldiak dantzatu zituzten lehen aldiz. Mattakada herriko batukada taldeak ere estraineiko emanaldia eskaini zuen. Bestak euripean joan badira ere, giro polita izan da.



ETXALAR

GIZARTEA → ZERBITZU ZABALAGOA ESKAINIKO DUTE

Laster autobus geltokia izanen da Etxalarko bidegurutzean

Irungo ospitalera joateko zerbitzua jartzea ere espero da

Irune eta Itsaso

Etxalarko bidegurutzean autobus geltokia egiten ari dira, orain artean kamioiak aparkatzen zituzten tokian. Geltokia bukatzen denean, kamioiak aparkatzeko tokia, Lesaka alderago jarriko dute. Hemendik aitzinera autobus linearen ardura Burundesak izanen du eta goizean, Irungo ospitalera joateko zerbitzua eskainiko dutela espero da.

Turismo bulegoaren ordutegiaren zuzenketa

Aitzineko kronikan agertu zen turismo bulegoaren ordutegia ez zen zuzena. Honakoa da ordutegi zuzena: uztailearen 17tik abuztuaren 17ra astelehenetik ortziralerako 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara egonen da zabalik (astelehen arratsaldeak itxita). Larunbat eta igandetan 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egonen da zabalik. Bisita gidatuak egiteko jendea bilduko baltz, 13:00etan itxiko litzateke bulegoa. Bisi-

ta gidatuak, aurten asteburuetan bakarrik eskainiko dira uztailearen 19tik abuztuaren 17ra, eta doan izanen dira. Taldeak gutxienez 5 lagunekoa izan beharko dute eta apuntatzeko 948635386 edo 662170035 telefonora deitu beharko dute interesatuek. Abuztuaren 20tik 29ra goizetan bakarrik egonen da irekia; 10:00etatik 13:00etara.

Usategietako enkantea

Iarmendi alderdiko 21 ehiza postuen enkantea irailaren 6an egiten dute, larunbat eguerdian. Garestienaren hasierako prezioa 3.205 eurokoa da eta merkeena 900 eurokoa. Egun horretan hartu gabe gelditutako postuei eta ukituak izan direnei seita emateko aukera izanen da.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Baztan, Malerreka, Bidasoako XVII. Trikitixa txapelketa

Uztailaren 5ean XVII. Trikitixa txapelketa ospatu zen Lesakan. Ttikien kategorian Igone Arozena eta Janire Telletxea eta Uxue Iturria eta Leire Iribarrenek parte hartu zuten. Ertainen kategorian Ainhoa Telletxea eta Martxel Larrazak ari ziren eta gazteetan Itsaso eta Irune Elizagoien. Denek maila ona erakutsi zuten, baita emaitza politak lortu ere. Igone eta Janirek 30 euroko eskupekua eta garaikurrak, Uxue Iturria eta Leire Iribarrenek hirugarren postua, 40 euro eta garaikurrak, ertainen kategorian txapeldunak izan ziren Ainhoa eta Martxel eta hauek txapelak, garaikurrak eta 60 euro irabazi zituzten eta azkenik gazteen kategorian, Itsaso eta Irune Elizagoienek bigarren postua lortu zuten; garaikurrak eta 100ko sariarekin. Zorionak denei eta segi horrela.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Erramun Martikorenaren kantaldia

Uztailaren 13an Erramun Martikorenaren kantaldia izan zen Etxalarko Elizan eta Larraburua Elkarteak. Hagitz jendetsuak izan ziren bi emanaldiak eta Larraburuko juntak eskerrak eman nahi dizkiete kantaldira bertaratu eta borondatea eman zuten guztiei.

XAGU
LIBURUDENDA
Tel./Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osakun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- LIBURUDENDA
- KOLoretako FOTOKOPIAK
- USBUK BILKIDAK IMPRIMATZEN
- ESKAKERAK
- ESKOLA MATERIALA
- IMPRESIONATZAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGURKARAK, ALDEKARAK

"TELLETXEA"
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -

John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
LESAKA • T. 619 418 683 • john.telletxea@hotmail.com
www.telletxealorazaintza.com

KIROLA → PROBA KONBINATUAN

Iruñeko Sanferminetako herri kirol saioan parte hartu du Irisarrik

Irisarri Parkeko maskota, Baxi, animatzen eta sariak banatzen izan zen hiriburuan

Joxean ORTEGA

Aurten ere Igantzin Herri Kirolak egiten dituen haur taldeak, Irri-sarrik, Iruñeko San Ferminetan kimu mailako proba konbinatu era-kustaldia eman zuen: Andra Mari, Araxes eta Ultzama taldeekin batera proba konbinatua egin zuten Foruen Plazan. Ederki pasatu zuten eta gainera Baxi, Irri-sarri Land-eko maskota animatzera ere etorri zen: beno animatzera eta saritxoak parte-

hartzaileen artean banatzera, noski.

Pintxo-potea eta paella igerilekuan

Igantziko igerilekue-tan pintxo-potea martxan paratu dute: ortzi-ralero arratsaldeko 7:30etik 9:30era pintxo goxua eta tragoa hartzen ahal dira 1,5 edota 2 eurotan, hartzen den tragoaren arabera. Gainera igandero paella prestatzen dute eta baita edozein egunetan ere aurretik eskatuz gero. Ea eguraldiak laguntzen duen eta herrian ditugun igerileku ederretaz gozatzeko aukera gehiago ditugun...

ARGAZKIAK: JOXEAN ORTEGA
Irisarri Herri Kirol Taldekoak bikain ibili ziren Iruñeko Foruen Plazan uztailaren 11n.



**HORMIGOI ETA ZUREZKO EGITURA
DUTEN ETXEBIZITZEN PROIEKTU ETA
ZUZENDARITZA TEKNIKOAK**

Fernando Orset Mauleon arkitekтура
Frain Auzoa, 27 IGANTZI 615 700 007

APARAN, S.A.

ERIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarniak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel. 948 456 080

Fax: 948 450 334

DONEZTEBE

ARANTZA

GIZARTEA → ABUZTUAREN 24TIK 29RA

Panticosako bainuetxean egonaldia antolatu dute abuztuaren bukaerarako

Hemendik hararako bidaia autoz eginen dute

Nerea ALTZURI

Madeiran uztail hasieran egon ondotik, oraingoan, borts eguneko egonaldia antolatu dute abuztuaren akaberarako. Erlaxatzeko egonaldia izanen da eta bidenabar, hain osasungarria den bainuetxeko sesioekin osatua izanen da. Panticosako hotelen pentsio osoan egonen dira eta zirkuitu termalean, ordu eta erdi-

ko saioa eginen dute.

Eskaintza hau 55 urtetik gorako lagunei zuzendua bada ere, pertsona gazteago bat joan daiteke heldu baten lagun.

Joan-etorria autoz eginen dute, egonaldia merkeagoa aterako da horrela eta gisa berean, aisialdia askatasun haundiagoarekin antolatu daiteke. Logela bikoitzaren prezioa 290 eurokoa da eta banakako logela, berriz, 135 eurokoa. Ordainketa han bertan eginen da. Joan den igandean zen izena emateko azken eguna.



ARGAZKIA: ITXARO ETXAGUE

Neska-mutikoak udalekueetan

Abuztuaren lehenera arte goizak ederki hornituak izanen dituzte herriko gaztetxo-eneke udalekueetan. 20 haur ari dira, 13 Haur Hezkuntzakoak eta 7 Lehen Hezkuntzakoak. Eguraldiagatik, hasierako astean behintzat, barruko ekintzak egin dituzte haur eta gaztetxoek: eskulanak, sukaldaritza tailerra... Eguraldi hobexeagoak ere izan dira tartean eta kanpoko ekintzetan aritzeko ere probextu dute. Aipatu, uda honetan, Lagunekin Jolasean taldeak koordinatu eta prestatu dituela neska-mutikoen jarduerak. Olaia Matxikote eta Itxaro Etxague dira begiraleak, Larraintz Gonzalez zuzendaria eta Itxaso Etxabide koordinatzailea.

MADEIRAN 49 LAGUN

Joan den ekainaren 30tik uztailaren 7ra 49 lagun Madeiran egon ziren. Irla honetako egonaldia ederki pasatu zutela aipatu digute.

Bilbotik hegazkina hartu eta Funchaleko hotel bat izan dute oporraldiaren egonleku, bertatik egin baitituzte ateraldi guziak.

Uztailaren lehenean, Funchaleko hainbat leku ezagutu zituzten: Santa Catarina parkea, Quinta Vigia erresistentzia, bertako lorategi botanikoa, lore eta landarez osaturiko eremua izateaz gain, kultur eta zientziagune ederra; eta Ponta de Sao Lourenço penintsula, itsasoa-ri begira egoeko naturaz hornituriko leku paregabea.

Uztailaren 2an, Pico Dos Barcelos eta Eira Do Serrado begiratokiak bisitatu zituzten. Madeira irlaz gozatzeko puntu ezin ederragoak dira. Ondotik Monte parrokia bisitatu zuten.

Inguruan, platanondo eremu haundiak eta urte osoan loratua egoten den lorategia ikusi zituzten.

Uztailaren 3an, Camacha eta Santana herriak ezagutzeko aukera izan zuten. Camacha zumezko industria eta folklorea direla eta, ezaguna da. Santanan, bertzeak bertze, etxeek dituzten teilatu triangelarrak berexiak dira.

Hurrengo egunean, Porto Moniz bisitatu zuten eta bertako xoko erranguratsuenetan ibiltzeko aukera izan zuten. Tartean, egunen bat ekintza gidaturik gabe-koa izan zuten eta bakoitzak nahi zuen moduan antolatu zuen eguna. Azkeneko egunean, bertako jaki tipikoak dastatzeko aukera ere izan zuten.

San Fermin Egunean etxera itzuli ziren.

Alkate berria

Azken agintaldian alkate izan dugun Jaime Iturria Mitxelenak uztai-

laren 11n aurkeztu zuen kargua uzteko eskaera. Egun horretako ple-noan onartu zuten dimisioa eta Ander Alman-doz Indakoetxea izen-datu dute alkate kargu-rako.

Udako bestak

Udako ekitaldien artean, ezin aipatu gabe utzi herriko bestak. Abuztuaren 14an hasi eta 17an bukatuko dira, ortzegunetik igandera. Xehetasun gehiago hurrengo alean izanen dituzue, baina aurtien ere haur, gazte eta helduek hainbat ekitaldi izanen dituzue gozatzeko. Bestak bukatu eta ondoko larunbatean, berriz, abuztuak 23, Arantza Rock jaialdia eginen da.

Ezbeharra

Joan den uztailaren 15ean Erreneko Gurtze Iparragirre Oskoz joan zitzaigun, istripu baten ondorioz. Lerro hauen bidez, gure doluminak adierazi nahi dizkiegu familiari.

MERKE ALDIAK
%-50 ARTE

ABUZTUAREN 31-A ARTE
MARKA GUZTIAK BENTA PEION DAUDE!

3 POMMES - BIKET - BUNSAK - BLUE MONKEY - BIK - CALVIN KLEIN
CONVERSE - DUKLEY - DENIM & SUPPLY - DESIGNER DUCKERS -
SASTYNA - ESPRIT - G-SHOCK - HUGO BOSS - JERK - L'EGEE
JACK JONES - KAPORAL - NOKKA - LACOSTE - LACOSTE LINE - LEE - LEVI'S
LITTLE MARCEL - LOLLIPOPS - LOTTO - MANGO - NARAYANA - ONLY - ONLY
PLAY ORCHESTRA - OUTFITTERS NATION - OXWON - PEPE JEANS - PEIT
BATAVO - PROMISE - RALPH LAUREN - ROLSON - RIP CURL - SAMPSONITE
SELECTED - SUPERDRY - TRUSARDI - THE NORTH FACE - TOMMY HILFINGER
VANS - VERO MODA - WRANGLER

PEIO
www.venta-peio.com
Tel: +34 952 222 800 (ext.) + 34 952 222 807 (ext.)
Amagü / Dantxalea / Babilio / Landibar / Agus Benta / Barden

HEZKUNTZA → ARRAKASTA HANDIAREKIN

Bi ludoteka antolatu ditu udarako Guraso Elkarateak

Lehen Hezkuntzakoak ingelesez ari dira bi txandatan

Maidar PETRIRENA

Udan bi ludoteka antolatu ditu Guraso Elkarateak. Alde batetik Haur Hezkuntzako haurrentzat, urtero antolatzen zena, eta bertetik, Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara, ingelesez eskaintzen ari dena. Ttikien ludotekan hezitzaileak Itxaso Arrieta eta Laura Mendibil sunbildarrak dira. Bertzetik, Ingeles ludotekan, lehendabiziko hamabostaldian 20 ikasle izan direnez, bi hezitzaile aritu dira berarekin egunerokoan. Rakel Ordoki donezte-

barra eta Donamariko Mikel Urroz izan ditugu. Bigarren hamabostaldian berriz, 16 ikasle izanen dira eta Rakel Ordokik bakarrik eramanen du taldea.

Izugarrizko arrakasta izan dute bi ludotekak apuntatzeko momentuan eta argazkietan ikusi daitekeenez gustora dabilta. Ttikiek pailazo mozorroa eta zapela egin dute, argazkian ikusi daitekeen bezala. Koxkorrenak berriz, kamiseta pintatuak egin dituzte.

Saharatik gurera bosgarren urtez

Ekainaren 26an gurera

Ba al zenekien

Unai Bertiz harrijasotzaileak aurtengo sanferminetan Nafarroako txapela zazpigarren aldiz jantzi duela. Zorionak!



ARGAZKIAK: RAKEL ORDOKI ETA ITXASO ARRIETA

Ludotekako ttikienak goitian eta ingeleseko bi txandatakoak, beheitian.

etorri zen Saharako Salma. Berak jada 5. urtea du herrian uda pasatzen duela eta oraingoan ere aukera izan du esperientzia polit hau errepikatzeko. Gainera ingeles ludotekan apuntatzeko interesa izan du eta hagitx gustora ikusten zaio herriko bere lagunekin.



ARGAZKIA: IXA MAIA

Plaza eta parkea erreka azpian

Uztailaren 4an, komunikabideetan hainbertze ikusi eta aditu zen uholdeak Sunbillan ere izan zuen bere eragina. Argazkian ikusten denez, plaza eta parkea egun honetan Bidasoa ugaldea ziren.

HERRI KIROLAK

XIII. Ramon Latasa Saria eta asto proba Santiburtzioetako asteburuan

Antton ESPELOSIN

Abuztuaren 10ean, igandean, 19:00etatik aitzinera jokatu da XIII. Ramon Latasa saria pilotalekuan. Antolatzaileak lan handia egiten ari dira eta 2002tik honat, urtero bezala jaialdi bikaina antolatu dute, elkartu daitezkeen hamar aizkolari onenekin bost bikote

osatuz: Floren Nazabal-Ander Erasun; Aitzol Atutxa-Ugaitz Mugerza; Donato Larretxea-Felix Etxeberria; Iñaki Azurmendi- Jon Rekon-do eta Unai Otaño-Joxemari Olasagasti. Orain arte lau proba desberdin egin behar izaten zituzten. Aurten, ordea, lan bakarra izanen dute, baina lan luzea.

Bikote bakoitzak 16 enbor moztu beharko ditu; hamar kanaerdiko eta sei 60 ontzako. Euskal aizkora probak gehiago dira iraupeneko probak abiadurakoak baino. Txapelketetan iraupena beti izaten da ordu erditik gorakoa eta zaleei hori gustatzen zaie. Horregatik aldatu da aurten. Ekitaldi berean, Migel Mindegia handia arituko da kanako enbor bat moztzen, 65 urterekin. Mindegia oraindik go-

goratzen da bere maisua izan zen Ramon Latasaz, eta berak ere omenaldia egin nahi dio marka handi bat eginez.

ASTO PROBA

Herri kirol zaleek ederki pasatzeko aukera izango dute abuztuaren 9an, larunbata, 19:00etatik aitzinera, Ulibeltzak elkarateak antolatutako herri kirol jaialdian. Aspaldiko urteetan gazte koadrila batek herri kirol saioa egiten du bestetan, se-

kulako giroa sortuz. Aurten ere proba berezia izanen da. Asto proba jokatu dute, zubi berrian. Hiru asto ari-tuko dira lehian eta 550 kiloko harria erabiliko dute 15 minutuko saio batean. Asto bakoitzak bi laguntzaile izanen ditu: Darko astoarekin Unai Bertiz eta Igor Bertiz; Isidro astoarekin Arkaitz Vicente eta Luis Ibarra eta Bisente astoarekin, Iñaki Aranbillet eta Xabier Petrirena.

DONEZTEBE

KIROLA → UZTAILAREN 26AN

Errekaren udako mendi ateraldia Mallo de Acheritora egingen dute

Herrira bueltan, afaria izanen dute Aranzokon

TTIPI-TTAPA

Erreka elkarteko mendi taldeak udako ohiko ateraldia egingen du uztailaren 26an, aurten goan Mallo de Acheritora (2.375 metro), Linza inguruan. Mendiak ez du aparteko zailtasunik eta edozeinek egiteko modukoa da. Larunbat goizeko 5etan abiatuko dira kiroldegitik eta autoetan antolatuko dira mendizaleak. Ibilbide borobila egingen omen dute, bideak ez errepikatzen. Menditik jausterakoan, elkarrekin bazkalduko dute eta herrira bueltan afaria ere izanen dute Aranzokon.

Apuntzeko epea uztailaren 30ean akituko da.

Nafarroako erremonte txapelketa

Larunbat honetan abiatu da Nafarroako Erremonte txapelketa-Magna Sari Nagusia.



ARGAZKIA: INIGO GOÑI

Xanti Utergak ezin izan zuen Sanferminetako txapelketa irabazi

Sanferminetako erremonte txapelketako finala jokatu zen uztailaren 12an Uharteko Euskal jai pilotalekuan eta pronostikoaren kontra, min hartuta dagoen Kotteto Ezkurraren ordez sartu den Etxeberria IV eta Ion suertatu dira txapeldun, Xanti Txibi Uterga eta Barrenetxea IV.ari 35-40 irabazita.

Ezkurra II eta San Miguel, Uterga eta Endikaren kontra aritzekoak ziren. Patxi Olazar

ere ari da txapelketan, Etxeberria IV. arekin. Etxabe II-Agirrezabala da laugarren bikotea.

Aurten ez da Donezteben partidarik jokatu eta finala irailaren 21ean izanen da Zubirin.

BORTZIRIAK

Zatoz **BORTZIRIAK**-era eta ikusi **uztaila** eta **abuzturako** prestatu ditugun **ESKAINZA BEREZIAK**

COMBI NO FROST SIEMENS KG39NVI32
Ecolight: LED argiztapena
Neurriak: 201x60x65cm
0°C-ko kutxa eta hezetasun-erregulatzailoa duen kutxa.

699€

Aurreztu **75€** Zure hurrengo erosketarako
Aurreztu **100€** Zure elektrizitate fakturarako
eta gainera ordaindu **12** hilabetez **INTERESK GAISE**

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

EGA ikastaroa

Malerrekako IKA euskaltegiak abuztuan EGA titulua eskuratzeko ikastaroa antolatu du, abuztuaren 4tik 29ra, lau astez; era presentzialean edo ON-LINE edo autoikaskuntzaren bitartez egiteko aukera bada. Interesatuak 948 451555 telefonora deitzen ahal dute edo malerreka@ikaeuskaltegiak.eu helbidera korreo elektronikoa igortzen ahal dute.

KONPONKETAK ere egiten ditugu

BORTZIRIAK expert

%20 DESKONTUA SUKALDE ALTZARIETAN

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com



UTZITAKO ARGAZKIA

Ludotekan ari diren neska-mutikoetako batzuk.

GIZARTEA → UZTAILA ETA ABUZTUAN

Ludotekan hasiak dira neska-mutikoak

Izaro eta Ixiar
dira monitoreak

Arkaitz MINDEGIA

Herriko haur guziak oporretan daude. Batzuk igerilekura, besteak hondartzara eta erreketan bustialdi batzuk hartzen ari direnak ere badira, jolasekin batera udaz gozatuz. Iaz be-

zala, aurten ere ludoteka martxan hasia da uztailean, astelehenetik ostiralera goizeko 10etatik 13etara. Izaro eta Ixiar dira arduradunak eta abuztuan ere ariko dira. Gisa guzietako ekintza antolatuak dituzte, bertan apuntatuak dauden haurrek goiz pasa ederra pasatzeko: txangoak, taile-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Maika Ariztegi eta Ander Erasun txapeldun

Ez du atzenduko 2014ko uztaila Maika Ariztegik. Uztailaren 9an Nafarroako ingude altxatze txapelketa irabazi zuen Iruñean, marka berria eginez gainera (93 altxaldi). Hilaren 16an, Markinan egin zen lehen aldiz Euskadiko ingude altxatze txapelketa eta hori ere irabazi zuen, 91 altxaldira (10 kiloko ingudea zuten, Nafarroakoan baino kilo bat gehiago). Mertxe ahizpa bigarren izan zen Nafarroakoan eta hirugarren Euskadikoan. Ander Erasunek, berriz, Nafarroako binakako aizkora txapelketa irabazi zuen, Jon Rekondo leitzararekin. Urrezko Aizkorako txapeladunen ligan ere bikain ari da aurtiztarra.



rak, marrazketa... 18 haur apuntatu dira, baina nahi duenak orain-

dik ere apuntatzen ahal du bere seme-alaba. 2 urtetatik 7 urte arteko

umeak hartzen dituzte. Prezioa: ume bat 85 euro eta bi 130 euro.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Udako merkealdia

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

NARBARTE

GERTAERAK → UZTAILAREN 4AN

Kalte handiak utzi ditu uholdeak

Belagietatik hainbat silo eraman ditu urak eta zuhaitzak zainetatik ateri

Martin BERTIZ

Uztailaren 4an izandako uholdeak utzitako ondorioak herrian ere ederki nabaritu dira. Jakina den bezala ez zen bertan izandako euriarengatik izan baizik eta Baztanen bota zuenarengatik.

Kalteak nabarmenak izan dira, Bentuneko eta Petixeneko etxekoei

zurginan belagian pila-turik zituzten 70 bat silo bola urak eraman eta hondatu egin zizkien; Albinekoei Giltxaurdegin zituzten 30 urteko hiru giltxaur zain irauli zien, Argiñenekoei Errota ondoan duten belagian egur pila hedatu zien eta paretetan kalte ederrak izan zituzten; Errota ondoko kiwi plantazioak ere kalteak izan zituen, Errotan bertan ura sartu zen, Marinon etxekoak goiz hartan beteta zuten gasoil tankeak eraman zien eta La-koizketakoei Lanbaseko belagiko hesia hondatu eta bertan zituzten 20 silo bola eraman.



ARGAZKIAK: MARTIN BERTIZ

Bideetan, etxeetan eta belagietan kalte nabarmenak utzi ditu uholdeak.

IKASTAROAK

Urrian hasiko den Zunba ikastaroan izen emateko epea irekiko da

Idoia IRIARTE

Zunba klaseak urriaren lehenengo astear- tean hasiko dira eta maiatzaren azkeneko ostegunarekin bukatu- ko dira.

Klaseak astearte eta ostegunetan arratsal- deko 21:00etatik 22:00k arte izanen di- ra. Informazio gehiago

nahi duenak telefono honetara dei dezake: 696324785

Apuntatzeko epea abuztuaren 1etik ira- ilaren 15a bitarte iza- nen da. Eta apun- tatzeko tokiari dagokio- nez NARBARTEN Esther janaridendara edo te- lefono mugikorrera dei- tuta nahikoa izanen da.



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Itxura ederra hartu du aterpeak

Itxura ederra hartu du patioak. Aterpea Joxemi Bengotxea zurgindegikoek go- ratu dute eta eraikia bukatzeko gutxi falta da.

10 SARRERA ZOZKETATUKO DITUGU urtean zehar

IGANTZI NAFARROA
Tel +34 948 926 922
www.irisariland.es

GIZARTEA → NAFARROAKO GOBERNUAREKIN BILDU DIRA

Berriz ere eskola ireki nahian dabiltza Udala eta gurasoak



Gutxienez bost ikasle beharko lirateke

Fermin ETXEKOLONEA

Aukera ttiki bat ikusten da berriz ere eskola irekitzeko herrian, baina gutxienez bost bat ikasle eskatzen dituzte. Alkatea eta zinegotzi bat Hezkuntza Departamentuko ordezkariekin bildu ziren uztailaren 2an eta gurasoak ere mugitzen ari dira.

Mikel Indakoetxea finalean

Nafarroako hirugarren mailako aizkora txapelketako kanporaketan bigarren izan zen Iruñean Mikel Indakoetxea. Abuztuaren 17an jokatuko du finala Ezkurran.

Festetako zerrendak

Gazteek paleta txapelketa mistoa eta eskuz binakako pilota txapelketak antolatu nahi dituzte, finalak festetan jokatzeko. Zerrendak irekiak daude.

Auzolana

Abuztuaren 2an auzolana egiteko asmoa du udalak, festen aurretik bazterrak txunkuntzeko.

Kinto afaria

Uztailaren 26an Errandonea tabernan 1961, 1962 eta 1963ko kintoak. Errandonean bertan eman behar da izena.

Orain da UNEA.

BIHURTU ERRENTAGARRI ZURE AURREZKIAK RURAL KUTXAREKIN

Zure aurrezkiarako errentagarritasun handiagoa bilatzen ari bazara, zaitza Rural Kutxara. Gurea interesgarri bat kontatu behar dizugu.

Errentagarritasuna hobetzeko proposamen ugari daukagu zure aurrezkiak modu arinagoan labeatzeko, espere duzunari egokitzeko zailtasunak. Tratatari profesionala ematen digugu zure diruari.

Zaitza Nafarroako Rural Kutxara. Zain izango gaitugu.

www.cajaruraldebarra.com

GAZTELU

OIZ

BESTAK → ABUZTUAREN 1ETIK 4RA

Santo Domingo bestak abuztuko lehen egunetan

Egun handian Meza Nagusia eta herri bazkaria izanen dute

TTIPI-TTAPA

Lau eguneko Santo Domingo bestak antolatatu dituzte Gaztelun ere.

ORTZIRALA, ABUZTUAK 1

- 20:00etan suziariak eta ondoren txistulariak herria alaitzen ibiliko dira.
- 22:00etan Zopak Herriko Ostatuan.

LARUNBATA, ABUZTUAK 2 HAURREN EGUNA

- 10:00etan kalejira.
- Goizez eta arratsaldeaz jokuak eta puzgarriak.
- 17:00etan mus txapelketa.
- 19:00etan txokolatada.
- Arratsaldeaz eta gauaz dantzaldia AGERRALDERekin.
- 21:30ean gazteen afaria.

**IGANDEA, ABUZTUAK 3 BEZPERA**

- 10:00etan kalejira.
- 13:00etan aizkora apostua (Oihan Larretxea eta Mikel Indakoetxea, Etxeberria aita-semeen kontra).
- 17:00etan partxis txapelketa.
- 19:30etik 22:00etara dantzaldia AGERRALDERekin.

ASTELEHENA, ABUZTUAK 4 SANTO DOMINGO EGUNA

- 09:00etan gosaria plaza.



ARGAZKIAK: MAIALEN MITXEOK UTZIAK

Herri bazkaria eta gazte koadrilla parrandan.

- 10:00etan kalejira.
- 11:00etan Meza Nagusia eta ondoren salda Herriko Ostatuan.
- 14:00etan herri bazkaria.
- Arratsaldeaz dantzaldia AGERRALDERekin. Eta ondoren, Gaixoa Ni...

ABUZTUAREN 2AN

Iruridak eta Doneztebek jokatu dute laxoa finala

TTIPI-TTAPA

Baztan-Errekako 35. Laxoa txapelketako finala abuztuaren 2an jokatu dute Oizen eta gauza bat jakina da: Doneztebe eta Iruritarren arteko finala izanen dela. Izan ere, finalerdietan Irurita A (Joseba Urtasun-Oscar Urrutia-Iñaki Etxandi-Miguel Bidegain) Irurita Bren (Xabier Barberena-Gorka Urtasun-Jagoba Ramos-Karlos Goikoetxea) kontra eta Doneztebe A (Pascual Bertiz-Koldo Legarra-Jokin Arraztoa-Javier Bertiz) Doneztebe Bren (Javier Almandoz-Asier Mutuberria-Juan Telletxea-Bittor Mendi-buru) kontra ari dira. Hau idazterakoan, joaneko partidak jokatuak dituzte eta oraindik ez dago batere argi finalistak zein izanen diren, bi partidak 9-8ko emaitzarekin akitu baitziren, biak A taldeen alde.

Finalerdietako itzuliko partidei dago kienez, Irurita B eta Irurita A artekoa uztailaren 19an jokatzekoa zuten Iruritan eta Doneztebe B eta Doneztebe A artekoa, uztailaren 26an, larunbat arratsaldeko 5:30ean jokatu dute Donezteben. Joaneko partidak ikusita, favorito argirik gabeko norgehiagokak dira, baina garaileek sari ederra izanen dute: finala jokatzeko txartela.

TXARUTA, S.L.

Iturgintza · Berokuntza · Gasa

ongi pasa bestak!

948 45 17 28 · 659 77 00 15

GAZTELU

Gazteluko Ostatur

- MENUAK ENKARGUZ
- PLATER KONBINATUAK
- BOKATAK · RAZIOAK

T. 948 450 105

USOA

Nekazaritza kooperatiba

- Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
- Ongarriak · Burdin tresnak
- Insektizidak · Edariak · Haziak
- Botikak (errezetarekin)

Etkez etxeko banaketa egiten da Kalefakzioa eta ibigailuendako gasolioa

Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 · ETXALAR

BEINTZA-LABAIEN



OSPAKIZUNAK → ABUZTUAREN 1ETIK 4RA

Aizkora saioak eginen dituzte bestetako larunbat eta astelehenean

Hondar egunean bertso bazkaria eginen da Angel Mari Peñagarikano eta Andoni Egaña bertsolariekin

TTIPI-TTAPA

Lau eguneko bestak antolatu dituzte Beintza-Labaienen. Beti bezala, ekitaldiak txandaka eginen dira, egun batean Beintzan eta hurrengoan Labaienen:

ORTZIRALA, ABUZTUAK 1 (BEINTZAN)

- 20:00etan altxaferoak, beste hasiera emateko.
- Ondoren karrikabuelta herriko trikitilariarekin
- 21:00etan zopak, Itturondo elkartean eta

Labaiengo ostatuan

- Gauez dantzaldia OHARKABE taldearekin.

LARUNBATA, ABUZTUAK 2 (LABAIENEN)

- Goizean karrikarronda herriko trikitilariarekin.
- 11:00etan: Plater-tiroa.
- 12:00etatik 14:00etara: Puzgarriak eta Kars.
- 16:00etatik 18:30era: Puzgarriak eta Kars.
- 19:30ean aizkora apostua: Donato Laretxea eta Oihan Laretxea, Joxe Mari Olasagasti eta Ander Erasun.
- Arratsaldean gauez dantzaldia Jalisko band taldearekin.

IGANDEA, ABUZTUAK 3 (BEINTZAN)

- Goizean karrikabuelta Iturengo txistulariekin



ARGAZKIAK: ARANTXA ITURRALDE UTZIAK

Herri kirolak ez ezik, bertso bazkaria ere izanen dute aurtengo festetako egitarauan.

- girotuta.
- 11:30ean Meza nagusia.
- Ondotik, dantzariak eta gero LUNTxa.
- 17:00etan Mus Txapelketa.
- 18:00etan, haurrendako jokoak (Itturondo elkartek antolatutako).
- 19:00etan magia-jokoak (Iurgi Sarasaren eskutik)
- 21:00etan Tortilla eta postre lehiaketa
- 22:30ean suak.
- Arratsaldean gauez dantzaldia Joxe Angel soinuariarekin.

ASTELEHENA, ABUZTUAK 4 (LABAIENEN)

- Goizean karrikabuelta Iturengo txistulariekin.
- Egurdian: Herritarren arteko aizkora apostua.
- 14:00etan: Bertso bazkaria Anjel M. Pe-

- ñagarikano eta Andoni Egañarekin.
- Bazkal ondoren, karrikabuelta Iturengo txistulariekin

- Arratsaldean gauez dantzaldia Joxe Angel soinuariarekin.
- 24:00etan "Gaixoa ni" bestak bukatzeko.

LABAIENgo Herriko Ostatua

Ongi pasa bestak!

T. 948 450 811

ORBELA

SENDERENGA

Ongi pasa bestak!

Idoia - Miket | T. 948 450 014 | BEINTZA-LABAIEN

info@beintza-urbela.com | www.beintza-urbela.com

BALEZTENA

janaridenda

Ongi pasa bestak!

T. 948 450 044

Antsolantzena

BEINTZA-LABAIEN

EZKURRA

OSPAKIZUNAK → ERRAMUN MARTIKORENA ERE ETORRIKO DA

Aldaketak izango dira festetako egitarauan

Gaueko hiru orkesten ordeztu, lau akordeoilari ekarriko dituzte

Fernando ETXEBERRIA

Abuztuko Amabirjin jaien programa zehaztua dago eta horren berri hurrengo alearekin batera izango duzue. Baina egitarauko aldaketa garrantzitsu batzuk aipatuko ditugu oraingoan: hiru orkesta ekarri beharrean, lau akordeoilari ekarriko dituzte, aurrekontua murriztuz. Horren ordeztu, Erramun Martikorenak eta Erreka dantza taldeak emanaldi bana eskainiko dute, Erasun-Saralegi eta Rekondo-Mugertzaren arteko aizkora apostua izanen da, baita Nafarroako hirugarren mailako aizkolari txapelketaren finala eta pilota partidak ere. Umeen egunean, Ines Bengoa ipuin kontalaria eta umeen jokoak izanen dira. Herriko gazteen arteko herri ki-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Putzu Haundi ingurua ere ederki txukundu dute.

rol saioa eta Jose Angel eta Martikorenak alaitutako herri bazkaria ere izanen dira.

Putzu haundira bidea ireki dute

Zenbait boluntariok egindako lanari esker,

ermitatik Putzu Haundiko urjauzira doan bidea erabili daiteke dagoeneko. Erreka ondo bidea zabaldu egin da, belarrak, sasiak eta osinak kenduz eta karobitik urjauzira bitarteko bide berria egin da. Inguru hori ere txukun-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Eskolako lanak

Beli Lan enpresak egingo ditu eskolako zaharberritze lanak eta dagoeneko andamioak jarriak dituzte. Teilatua oso-osorik berrituko da eta fatxada txukundu. Lanak irailaren 10a baino lehen bukatu beharko dituzte.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Eguraldi kaxkarrari baratze ederra

Baztan errekaaren uholdeen ondotik eguraldia goxatzearren esperoan dago jendea, baina euria, lainoa eta hotzarekin segitzen dugu oraingoan. Hala ere, baratze batzuk itxura ederra eskaintzen dute.

duta eta oso-osorik ikusteko aukera dago orain. Hemendik, beste bi ur jauzitara ere igo

daiteke eta gainetik doan bidetik, Garaiko-etxeako bordan barrena Perralekuraino iritsi.



Koskontako bidea, 7 - 1
31770 LESAKA
T. 949 635 458
www.ttipi.net
info@ttipi.net



ttipi txartela
harpidetza bako
merkagarria da

ttipi txartela
eginez gero
2 liburu opari



OSPAKIZUNAK → BERMEOTARREI EMANEN DIETE PESTAREN LEKUKOA

Independentzia eguna antolatu dute abuztuaren 9an

Giza-torrea osatuko dute kataluniarrek plazan

JM BARRIOLA

Herriko pestak hasi aurreko egunean, abuztuaren 9an, Independentzia eguna ospatuko da Leitza. Herriko eragile ezberdinen artean osatu dute pesta eta aldarria lotzen dituen egun osoko egitaraua.

Goizeko 09:00ak aldera txistularien diana-rekin hasiko da eguna. Ondoren, 11:00k aldera ekitaldi politikoa egingen da udaletxean. 11:30etik aurrera herri kirolekin gozatzeko aukera izanen dute plaza gerturatzeko direnak, Leitzako Emakumezkoen harri-tira proba eta segidan, kuadrilen arteko herri kirolak antolatu baitituzte plazan. 17:30ean gure ikurrei omenaldia egingen zaie eta ondoren, Igualadatik (Katalunia) etorriko diren Castellers-ek giza-torrea osatuko dute plazan. 19:00tan kalejira berdea egingen da herrian barna, independentziarantz doazen herriei babesa eta bultzada eskainiz. 20:00etan batukada erritmoei hartuko dituzte kaleak eta gauerditiak aurrera kontzertuak antolatu dituzte. Pestaren baitan, lekukoa bermeotarrei pasako diete beraiek ere independentziaren aldarria egiten jarraitu dezaten.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Bertako produktuekin osatutako saskia aukeran

Kultur aroan kontsumo ereduen inguruko mahai ingurua antolatu zen eta bertan interesa piztuta, taldetxo batek berriz bildu eta kontsumo talde bat osatzea erabaki zuen. Ekonomia solidario, kontsumo eta osasuntsuagoa lortzeko asmoz, salmenta zuzenean oinarrituta, ekoizle eta erosleentzat onuragarria den elkarlana martxan jarri nahi dute. Horretarako lehenengo ekimena antolatu dute. Bertako baratzetako produktuekin osatutako saski bat eskuratzeko aukera eskaintzen dute. Horretarako aurrez, kontsumo taldeko partaide izan behar da, urteko kuota bat ordainduta. Gero, saski bakoitzagatik 10 euro ordaindu eta gutxienez 4 hilabetez saskia erosteko konpromisoa hartu beharko dute. Ezinbestekoa da modu honekin funtzionatzea, ekoizleak bere urteko produktua antolatu nahi badu. Horren ordainetan, produktu desberdinez osaturiko saskia jasoko du kontsumitzaileak etxean astero. Bertako ekoizpenari bultzada eman eta ekoizlea denborarekin honetatik bizi ahal izatea sustatu nahi da. Gainera, kontsumituko diren produktuek oinarritzko ezaugarri batzuk betetzen dituztela ziurtatuko da, tokian tokiko produktua izatea, garaian garaikoa eta modu agroekologikoan ekoiztutakoa.

Eraso sexistarik gabeko pesten alde

Gizarte zerbitzuetako berdintasun teknikariak, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egiteko deia egin die herritar guztiei, «guztion ardura baita». Herriko jaietan, harreman-eredu zuzenagoa bultzatu nahi dute, elkarrenganako errespetu eta tratu egokian oinarritzen dena, jarrera matxistak behin betiko baztertuko dituenak. Bi mezu argi zabalduz: Alde batetik, etxeko lanetan eta familiaren zainketan erantzunkidetasuna beharrezkoa dela azpimarratu du, gizon-emakumeok pestetaz baldintza berdinetan gozatzeko aukera izan dezagun. Bestalde, festa giroan errespetuzko jarrerak bultzatu nahi ditu, sexu-jazarpenaren eta sexu erasoen prebentzioa sustatzeko. Pestetan sexu erasoak jasateko arriskua handitu egiten da, eta denon ardura da, horri aurre egitea eta baita jarrera horiek salatzea ere, «kalea, gaua, eguna, pestak, pertsona guztien gozamenerako dira».

GIZARTEA

Alkoholikoak birgaitzeko hitzaldia izan zen udaletxean

JM BARRIOLA

Gizarte Zerbitzuek antolatuta, ekainaren 19an, iñigo Arluzea eta Gorka Villa AERGI taldekoek eman zuten hitzaldia. Alkoholikoak direla adierazi zuten, bi urte edan gabe daramatzen arren. Elkarrekin alkoholismoa eta bestelako adikzioak lantzen ditu eta droga menpekotasunaren prebentzioko bi teknikari ditu. Alkoholismoa «gaixotasun bat» dela eta «edaten hasi eta gelditu ezin duenari, bere gorputzak aski da esateko gaitasunik ez duen pertsonari» eragiten diola aipatu zuten. Asko dira egoera ukatu, ezkututzen duenak (bereiziki emakumeak), eta denek modu berean edan eta sentsazio berdinak dituztela uste dutenak, horregatik arazoa aztertu eta gizarteratzearen garrantziaz hitz egin zuten.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Udalak traktorea erosi du

Aurreko traktorea hondatuta zegoen eta mendi eta herriko lan asko egiteko erabiltzen zela ikusita, udalak egoera aztertu, aurrekontuetan aldaketa bat egin eta traktore bat ekartzea erabaki zuen. Neguan bi-deak ireki, herriko garraio lanak egin eta mendi eta lan eta abeltzainen lanak egiteko erabiliko da.

GOIZUETA



ARANTXA GAMIOK UTZITAKO ARGAZKIAK

Hamaika tortillen artean Mertxe Uitzirenak lortu zuen lehen saria (zartagi bat).

OSPAKIZUNAK → LAUGARREN URTEZ

Giro bikaina izan zen Karmen bezperako afarian

Mertxe Uitzik irabazi zuen patata tortilla lehiaketa

TTIPI-TTAPA

Amabirjin Karmengo bezpera dela eta arratsalde eta gau giro bikaina izan da aurten ere. Laugarren urtea da os-

pakizuna berreskuratu zenetik eta jendeak gero eta gehiago hartzen du parte. Lehen aldiz patata tortilla lehiaketa ere egin zen eta hamai-



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Iker Salaberria txapelkun Añorgan ere

Añorgako txapelketako finalak jokatu ziren uztailaren 13an. Iker Salaberria herritarra eta Jon Alberdi azpeitiarra 22-5 irabazi zieten Arrasateko Morón eta Zezeagari. Finaleko pilotari onenaren saria ere jaso zuen Salaberriak.

ARESO

GIZARTEA → GORRIZ ENPRESA ARDURATUKO DA LANETAZ

Herria eta Plazaola lotuko dituen oinezko bideko lanak berriro martxan

Abuztu bukaerarako bukatzea espero dute

Juana Mari SAIZAR

Aspaldi hasi ziren herria eta Plazaolako bidea lotuko dituen oinezko bidea egiten baina diru faltagatik, lehen

fasea egin eta obra geldirik egon da. Orain herriko langileak lanari ekin eta bidea txukuntzen ari dira berriro. Zola ere emango da. Lan horiek egiteko hiru enpresek aurkeztu zituzten proposamenak eta denen artean Gorriz aukeratu dute. Abuztu bukaerarako lanak amaitzea espero dute. Bukatzen du-

tenean oinez edota bizikletaz lasai ibiltzeko aukera izango da, bidean kotxeekin topatzeko inongo arriskurik gabe.

BESTE LANAK

Gorrizek beste lan bat ere egingo du. Egur loteak ateratzeko zailtasunak edukitzen ari dira, kurba batean kamioia ez delako pasa-

tzen. Horregatik, harkaitz handi bat puskatu eta kurba parean bidea zertxobait zabalduko dute.

Herrian egingo di-

tuzten lanekin bukatzeko, Analdeko parean zabor kontenedorearen zoko plataforma ere egingo dute.



Ba al zenekien

Ludoteka hasi dela. Lorea eta Itziar ari dira monitore lanetan, elkarrizketa egin eta kirol mankomunitateak beraiek aukeratu zituelako. Eguraldia lagun, ederki dabilta!

BESTAK → ABUZTUAREN 8TIK 11RA

Baztan-zopa Egunarekin hasi eta zikiroarekin akituko dituzte Zigako bestak

San Lorentzo
egun handian
herriko argazki
erakusketa
paratuko dute

TTIPI-TTAPA

Zigako San Lorentzo
bestak abuztuaren 8tik
11ra ospatuko dituzte.
Lau egun hauetan egi-
tarau zabala izanen du-
te:

ORTZILERIA, ABUZTUAK 8 BAZTAN-ZOPA EGUNA

- 20:00 txupinazoa, ezkil jotzea.
- 20:15 herriko trikitilari-
ek herri itzulia egingen
dute.
- 21:30 baztan zopak
(txartela maiordomo-
ek salgai).
- 12:30-05:30 Oharka-
be musika taldearekin
dantzaldia.
- 06:00 gosaria.

LAUNBETA, ABUZTUAK 9 HAUR ETA GAZTE EGUNA

- 10:30 Herriko trikitila-
riak herrian barna.
- 11:00 gazte gosaria

TXARTELAK

Otorduetako txartelak
Baztandarren
Biltzarren ondotik
salgai jarri dira iazko
prezioetan baina
abuztuaren 4tik aitzin
erosten duenak sal-
neurri handiagoa
ordaindu beharko du.

- soziedadean.
- 11:00 mus txapelke-
ta ostatzarrian.
 - 11:30 haur jokuak he-
rriko plazan.
 - 12:00 gazteak herriko
ibilbidean trikitilari-
ekin ibiliko dira etx-
ez-etxe.
 - 12:30 haur krosa.
 - 14:00 haur bazkaria
(txartela maiordomo-
ek salgai).
 - 17:00-19:00 haurren-
tzat puzgarriak eta na-
hi duen guztiarentzat
zezen mekanikoa.
 - 18:30 txokolatada.
 - 20:00-22:00 Eztengi-
ro taldearekin dantzal-
dia.
 - 22:00 xinger jatea eli-
zaren gibelean.
 - 00:00.-05:00 Eztengi-
roekin dantzaldia.
 - 06:00 gosaria.



ARANTXA GAMIOK UTZITAKO ARGAZKIAK

Haurrek izanen dute ederki pasatzeko aukera bestetan. San Lorentzo egunean, argazki
erakusketa paratuko dute, herritarren borondateari esker.

IGENDIA, ABUZTUAK 10 SAN LORENTZO EGUNA

- 10:00 herriko trikitila-
rien itzulia herrian.
- 11:00 meza nagusia.
- 12:00 herriko argazki
erakusketa eta luntxa.
- 12:00 Elizondoko bu-
ruhaundiak gaiteroe-
kin.
- 19:00-20:00 Malerre-
ka dantza taldekoen
ikuskizuna
- 20:00-21:30 Hauspo-

- lari-
ek taldearekin kan-
taldia.
- 21:30 txalaparta eta
joaldunak.
- 22:00 mutildantzak.
- 22:30 xinger eta ma-
gra jatea eliz gibelian.
- 00:00-03:00 Hauspo-
lari-
ek taldearekin dan-
tzaldia.

ASTELEHENA, ABUZTUAK 11 ZIKIROA

- 11:00 herriko trikitila-

- riak herriko itzulian.
- 11:30 gaztetxo-
en fron-
tenis lehiaketa.
- 12:00 herriko argazki
erakusketa.
- 13:00 ezkil-jotzea.
- 14:00 zikiroa (txarte-
la maiordomoek sal-
gai).
- 20:00-01:00 Joxeangel-
ekin dantzaldia.
- 01:00 xinger jatea.
- 02:00 ostatuan dj-a.
- 06:00 kazerolada.

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

MENDIALDE
Jatetxea
T. 948 453 060 - AMAIUR
www.mendialdea.com

**CARLOS
GARAIKOETXEA
ETXENIKE
abokatua**
Santiago, 59 2C - ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

ARMUA JATETXEA
T. 948 580 131
Ezkerreko aldean, 3. eta
1. floor

BAZTAN

GIZARTEA → BATZARRE INFORMATIBO BATEGATIK

5.400 euroko isunak jaso dituzte sei baztandarrek

Bizi dugun salbuespen egoeraren erakusle dela uste du Ezker Abertzaleak

TTIPI-TTAPA

Baztango Ezker Abertzaleak sei baztandarrek ekainaren akaberan jasotako 1.200 eta 600 euroko isunen (5.400 euro denera) berri eman du eta, bide-nabar, isun hauek eta herritarrek jasaten duten errepresio ekonomikoa salatu du.

Isunak Guardia Zibila jarri ditu joan den irailean Herriraren kontrako operazioari buruz Elizondoko plazan egin zen batzarre informatiboarengatik. Bere garaian Herriraren kontrako polizia-operazio horrek Euskal Herriko eragile desberdinen eta herritarren erabateko gaitzespena izan zuen. «Alta, operazioa herri honetan bizi dugun salbuespen egoeraren erakuslea izan zen eta sei baztandarrek jasotako isuna ere, horrela uler-

tu behar da», Ezker Abertzalearen ustez.

Bertzalde bereziki azpimarratzekoa eta salatzekoa da isun hauek batzarre informatibo bategatik izan direla. «Orain artio jakinarazi gabeko elkarretaratze-egatik horrelakoak ezagutuak genituen –adierazi zuten uztailaren 16ko prentsurrean–, baina ez informazioa ematea helburu zuten batzarreengatik. Ezbairik gabe, errepresioa kokka bat gorago eraman nahi dute. Batzartzeko, adierazteko, informazioa emateko eskubidea ukatu eta jazartzen duen estatua da Espainiakoa. Estatu ez demokratikoa».

Gauzak horrela, momentu honetan aipatu isun ekonomikoak errekurririk daude. Nola nahi ere, aurtengo udan baztandarrek jasaten duten «errepresio zuri hori» salatzekeo dinamikak eginen dituzte eta herritarren artean elkartasuna sustatu, arazoaren kontzientzia hartu eta herri erantzuna antolatzekeo lanean jarraituko du Ezker Abertzaleak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Elizondon bizikletan ibiltzeko ekimenak egin ditu Udalak

Bizikleta-mugikortasuna bulkatzeko asmoz Udalak bizikletaldia antolatu zuen ekainaren 27an Elizondoko karriketan. Adin desberdineko herritarrek erantzun zioten deialdiari multzo polita osatuz. Orain artio, bizikletaldiak ikastetxeek haurrei zuzendutako ekimenak izaten ziren, Udalak, aldiz, herritar guztiei bideratu nahi izan die. Bizikletaldia Mendingueta karrikan bizikleta-mugikortasuna sustatzeko egin den muralaren osagarria da. Bi ekimen horien bidez eta Elizondoko zenbait tokitan paratuko diren bizikleta-aparkalekuen bidez Udalak mugikortasun eredu iraunkorrako eta osasuntsuagoa bulkatu nahi du. Gauzak horrela, uda hasieran egindako ekimen hauek heldu den udazkenean izanen dute segida. Oraingoan, Udalak herrian bizikleta erabiltzeko gonbite-oharra igorri berri du Elizondoko etxeetarako.



ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO

Baztan Abentura Park inauguratu dute azkenean

Uholdeen ondorioz aste bat gibelatu behar izan bazuten ere, Beartzungo Baztan Abentura Park ofizialki inauguratu zuten uztailaren 12an. Miguel De la Quadra-Salcedo abenturazale ezagunak bota zuen inaugurazio-txupinazoa eta Pruden Indurain izan zen Nafarroako Gobernuako ordezkari Europako pendulo altuena (ehun metro) izanen duen parkearen irekiera ekitaldian.

PLAZARA DANTZARA TALDEAREN IDATZIA

Herritar guztiak Mutildantzak dantzatzera gonbidatuak

TTIPI-TTAPA

Besten garaia hasia da, orain arte izan diren herrietako bestetan mutildantza parekideak dantzatu direla eta nahi izan duten guztiek parte hartu ahal izan dutela azpimarratu ondotik, «hemendik goiti izanen diren besta guztietan beldurrik gabe mutildantzak dantzatzera» gonbida-

tu ditu Plazara Dantzara taldeak herritar guztiak.

Plazara Dantzarak eremu publiko guztietan dantzatzeko eskubidea aldarrikatzen du eta bidenabar, «Elizondoko herriko plazan dantza parekideak dantzatzeko diren ordu berean, ikastolan diskriminatzailea den ekitaldi bat antolatzea» salatu dute.

GIZARTEA → BIGARREN FASEA ABIATU DA ORAI

Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunaren diagnosia aurkeztu dute

Baztandarren %72ak uste du ez dituztela aukera berdinak

TTIPI-TTAPA

Udaleko Berdintasun sailak Berdintasunera-ko I. Plana egiteko diagnosia akitu du berriki eta uztailearen 17an aurkeztu du. 2013an hasi zen prozesu parte hartzaile honek bi helburu nagusi izan ditu. Alde batetik, Baztango Udalerria bere testuinguruan kokatzea eta, bertzetik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna erdiesteko bidean Baztango egoera zein den ezagutzea.

Azterlan honetan metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa erabili da: etxez etxe banatutako inkesten bidezko datu bilketa eta azterketa ez ezik, arlo ezberdinetako lau eztabaida talde ere egin dira.

Hezkuntzari dagokionez, Baztanen neskek eta mutilek ikasketak ezberdinak aukeratzeko dituzte, bai Lanbide Eskolan bai Lekarozko institutuan.

Lan munduan ere

oraindik ezberdintasun nabarmenak daude. Langabetuen multzoa ere sexuka banatzen da: emakumezkoak zerbitzu sektorean pilatzen dira eta gizonaek zerbitzu sektorean ez ezik eraikuntzan eta industrian. Baztango gizonazko langabetu gehienek 45 urtetik goiti dute; emakumezko langabetuak 30-39 urte tartean daude.

Behin betiko kontratua dutenen artean gizonak nagusi dira Baztanen. Emakumeek ordea, behin-behineko kontratuekin dihardute. Lanaldi osoko lanetan gizonak dira nagusi eta emakumeak ordea, lanaldi partzialekoetan.

Oraindik ere, azterketa honen arabera, zaintza eta etxeko lanetan emakumeak dira nagusi. Gizonen %1ak soilik dihardu horretan. Baztandarren iritzia kontuan harturik, gehienek ustea da etxeko lanak jendartean ez daudela baloraturik (% 70en ustea da).

INDARKERIA

Emakumeen aurkako indarkeria kasuak ezkutatze joera izan arren, datuek genero indarkeria egon badagoe-



ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO

Ruta Quetzal-eko gazteak bisitan

Garai bateko Ruta Quetzal (gaur egun Ruta BBVA) egiten ari diren gazteak Baztanen ibili ziren. Elizondoko Santiago elizan kantari aritu ondotik, eliz atarian atera zuten argazkia. Irurritako herria eta jauregiak ere ikusi zituzten eta Arizkun Juan de Goyenecheren aztarnaren gibeletik ibili ziren. Zugarramurdi eta Elizondo arteko Santiago Bidea ere egin zuten, Miguel de la Quadra-Salcedo gidari zutela.

la adierazten dute. Azken bederatzi urteotan 33 salaketa izan dira Baztanen. Hala ere, salaketek ez dute osotasuna erakusten, errealitatearen zati tiki-ttikia baino ez. Baztandarren ustez, indarkeria sexista anitzetan ezkutan gertatzen da.

Erantzundako galde-egietan oinarriturik, bada honako hau erratea: Baztango kultura jardueretan emakumeak baino gizon gehiagok parte hartzen duela; eta emakumeek ez parte hartzearen arrazoia denbora falta dela. Nabarmen gelditu da, bertalde, mutildantza aukera berdintasunik ezaren adibide bat dela.

Partaidetza politikoa-ri dagokionez, Udaleko alkatea emakumea den arren, 15 herrietan ez dago alkate den emakumerik eta mendi-ordezkarien gehien-gehienak ere gizonaek dira.

Baztandarren gehengoak pentsatzen du emakumeek eta gizonak ez dituztela aukera berberak (erantzundako galdetegian % 72k du uste hori).

Lehenbiziko azterketa hau Baztango Ber-



UTZITAKO ARGAZKIA

Lehenbiziko onddoak Arizkun

Maite Indak honako onddo hauek harpatu ditu Arizkun. Batek ia kilo bat pisatzen du.

dintasunerako I. Planaren abiapuntua izan da. Hastear dagoen bigarren fasean, berriro ere parte hartzeko prozesu bat paratu da martxan. Urria artio luzatuko den

prozesu honetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun alorrean ondoko lau urteetako ardatz estrategikak zein ekintza zehatzak zehaztuko dira.

Mármoles
SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444 | M. 629 659 583
ARIZKUN

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → 29 URTE ETA GERO UTZI DU TXARLI ALKORTAK

Nagusiz aldatu dute Altzatenean

Amaia
Etxeberriak
hartu du

Margari eta Koro

Herriko jatetxe zaharrenetarikoa batek nagusi berria du. Dolarean eta Laxoinean tarteka jatera ematen zen arren, duela 29 urtera arte jatetxe bakarra ginen herrian, Herriko Etxea. 1985ean Juan Luis Alkortak *Txarli* Altzatenea etxean izigarri moldaketa pulitak egin ondotik, izen bereko jatetxea edeki zuen.

Txarlik bertze berezitasun bat eman zion jatetxeari. Getaria, Orio, eta beste hainbat kos-

tako herritan bezalaxe arraina eta haragia, jate txeko atean, parrillan jendearen aitzinean, erretzen baitzuen.

Egun batez Frantziako "Geo" aldizkariko kazetari batek han bazkaldu zuen, arras gustura gelditu zen, eta erreportaje eder bat argitaratu zuen aldizkarian. Horrek ospe haundia eman zion, eta Frantzia aldeetik jendea espres etortzen zen Altzatenean bazkaltzera.

Orain Txarli bere bizitzako etapa bat itxitzera behartu da, baina ez ordea jatetxea itxitzera, Altzatenea esku onean utzi baitu: Oieriko-bordako Amaia Etxe-

berriak hartu du.

Behar ziren aldaketak egiteko bi aste etsita egon ondotik, uztailaren 4an irekiera besta ttiki bat egin zen. Martxan dugu berriz Altzatenea jatetxea bere txoko xarmangarri eta janari goxoarekin.

Ikuskizunak lezean

Ondoko egun haue-tan leze barnean bi ikuskizun berezi eskainiko dituzte.

Bata segidan dugu: uztailaren 26an (larunbata), 21:30ean. Hau Kataluniatik etorriko dena da, eta *Embruxe* du izena. Emanaldi diferentia izanen da, antzerkia, abesbatza, akrobaziak,



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Altzateneako atean Amaia eta Erkuden (sukaldaria).

dantza, eta rock musika uztartuko dituen. Ikuskizun honen zuzendaria La fura des Bauseko kide bat da. Sarrerak 2 euro balioko du.

Bertzea Iruñetik heldu zaigu, eta abuztuaren 8an (ortzirala),

18:00etan izanen da. Mitologia eta sorginkeria gaiak dituen txistu alarde bat eskainiko dute, non antzerkiak ere lekua izanen duen. Honen sarrera lezeokoarekin batera hartuko da, eta 4 euro kostako da.

BAZTAN

KIROLA → UZTAILAREN 27AN, SANTIAGO BESTEN BAITAN

Nafarroako bigarren mailako aizkora txapelketa Elizondon erabakiko da

Bortzek lortuko dute Doneztebeko ferietan jokatu den finalerako txartela

TTIPI-TTAPA

Nafarroako bigarren mailako aizkora txapelketaren kanporaketa jo-

katuko dute uztailaren 27an, igande arratsaldeko 7etatik aitzinera Elizondoko Iriarte pilotalekuan. Hameka aizkolari ariko dira lehian, bi kanaerdiko eta 60 ontzako enbor bat mozten, seguruenik Doneztebeko ferietan eginen den finalerako bortz txartelako baten bila.

Aitor Senosiain (Olague), Xabier Mindegia (Beintza-Labaien), Ene-

ko Saralegi (Leitza), Asier Pellejero (Areso), Iban Resano (Dorao), Goizeder Beltza (Etxarri Aranatz), Jesus Etxeberria (Beintza-Labaien), Angel Eraso (Salinas de Oro), Juan Jose Erdozia (Etxarri Aranatz), Iker Vicente (Otsagi) eta Mieltxo Mindegia (Zubieta) ariko dira.

Raul Castro urrozta-rrak txapelketan ez ari-tzea erabaki du, ondo-



rior maila galduko du kanporaketako azken sailkatuarekin batera. Arestian aipatu bezala,

kanporaketan sailkatu-riko lehen bortz aizko-lariak finalerako txarte-la lortuko dute.

KULTURA → UZTAILAREN 24 ETA ABUZTUAREN 7 ETA 21EAN, ORTZEGUNAREKIN

Kantaldiak eskainiko dituzte elizan hamabortzero

Saiberri, Arin Luzien eta Goraki ariko dira kantari

Joana GERENDIAIN

Uztailaren 24an, ostegunarekin, Saiberri Sarako taldeak kantaldi bat emanen du elizan. Gaueko 09:30ean hasiko da eta sartzeak 5 euro balioko du (urri-rik 14 urte baino guttiagokoentzat). Abuztuaren 28an berriz egingen dute saio bat.

Abuztuaren 7an ostirala, Donibane Lohi-tzuneke Arin luzien gizon abesbatzak kantaldi bat emanen du elizan. Kantaldia gaueko 09:15ean hasiko da, sartzeak 10 euro balioko du eta urri-rik izanen da 12 urte baino guttiagoko haurrentzat.

Abuztuaren 21ean ostirala, Goraki abesbatza mixtoak kantaldi bat emanen du elizan. Kantaldia gaueko 09:30ean hasiko da, sartzeak 10 euro balioko du, tokiak



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Saiberri taldeak eskainiko du lehen emanaldia elizan, ortzegun honetan.

aitzinetik erosten ahal-ko dira turismo bulego-an.

Erakusketa

Uztailaren 21etik 31ra Larrungo koloreak elkarteak margo eta eskultura erakusketa bat egiten du. Erakutsiko diren obrak elkarteko ki-deek egin dituzte. Erakusketa idekia izanen da goizeko 10:00etatik arratsaldeko 07:00etara eta Lur Berri gelan egingen dute.

Saguzarraren gaua

Uztailaren 24an lezeetan Saguzarraren gaua antolatua dute. Lehenik mintzaldi bat izanen da animalia horri buruz, eta gero ilundu-ko duelarik behatzen ahal-ko dira lezeetako sartzean. Ekitaldia gaueko 08:00etan hasiko da eta urri-rik da.

Selauru hustea

Abuztuaren 8an, ostirala, selauru huste bat antolatua da plazan goi-

zeko 10:00etatik landa. Selauru huste horretan edonork parte hartzen ahal du, leku bat erre-serbatzeko 0631215192 zenbakira deitu behar da. Bertan jateko (talo edo ogitar-teko) eta edatekoa izanen da. Euria baldin bada selauru hustea poli-kiroledegian egingen da.

Erromeriak

Sarako Izarra errugbi elkarteak bere besta egingen du abuztuaren

2an larunbatarekin, plazan. Bazkaria eta afaria antolatzen dute eta arratsaldean indar jokoak ikusten ahal-ko dira.

Zazpiak dantza elkarteak bere besta antolatzen du abuztuaren 9an, larunbatarekin. Arratsaldeko 6etan dantza ikusgarri bat emanen dute plazan, gero aperitifa egingen da eta ongi bukatzeko afaria. Bi menu proposatzen dira afarian, bat 10 eurotan eta bertzea 12 eurotan.

Eskubaloien besta abuztuaren 16an egingen da plazan. Arratsaldeko 07:00etatik goiti aperitifa izanen da eta gero bertan prestaturiko paela jaten ahal-ko da.

Ekoizleen merkatua

Abuztuaren 15ean, ostiralarekin, arratsaldeko 6etatik goiti merkatu bat antolatua da plazan. Euskal herriko ekoizleek beraien produktuak salduko dituzte: barazki, haragi, sagarno, arno... eta bertan jaten ahal-ko dira.

JATETKEA-ERBETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarinetatik
2 km. tara

PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

HARPIDETU!
eta hamabostero aldizkaria
zure etxean hartuko duzu

TARIFAK

- Hego Euskal Herria 40€
- Europa 59,50€
- Baztan, Urdazubi eta Maierreka 34€
- Leitza 17€
- Amerika eta Australia 124€
- Ipar Euskal Herria 59,50€

Koskontako bidea, 7 - 1 31770 LESAKA
T. 948 635 458 F. 948 635 457
info@ttipi.net | www.ttipi.net

OSPAKIZUNAK → UDA GARAIKO BESTAK

Giro ezin hobean ospatu dira karrika nagusiko eta Amotzeko bestak

Orain buruila arte egon beharko dute bestazaleek, Ibarrungo Mikeliak etorri arte

Franck DOLOSOR

Aintzira, karrika nagusia eta Amotzeko besten ondotik, orain buruila arte egon beharko dute bestazaleek auzo bateko bestak ospatzeko Senperen. Iba-

rrungo Mikeliak etorri bitartean aintzek oroitzen ederrak dituzte gogoan aurten ere gaitzeko giro ederra sumatu baita Jondoni Petri eta Madalena ohoratzen dituzten bestetan. Senpereko rugbi taldeak ekainean irabazi zuen Frantziako txapelketa denon gogoan izan zen eta kirolariek atsegin haundiarekin erakutsi zuten garaipenaren ikurra. Aurten Senpereko bestak aitzineko urteetan baino luzeagoak izan dira asteartean



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Ahate jokoa, danborrada, saltzaileek antolatutako merkatu ttikia, eskusoinua, kitarra eta kantariak ostatueta, gazteak gaueko besta giroan eta Urtz taldekoak, bere emanaldia bukatu eta gero, plazan ateratako argazkia.

saltzaileek merkatu ttiki bat eta dastaketak eskaintzen zituzten hiru ostatu ttiki muntatu zi-

tuztelako elizako plazan.

Argazkietan agerienez, izan zen non eta

nola ospatu eta bakoitzak bere neurriko besta egin ahal izan zuen han eta hemen.



GRUPO TANATORIO TALDEA

IRACHE

MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA

948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

— TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA —

— LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK —



Martzutzak
ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA

- ♥ Solnekoak
- ♥ Ilerako apaingarriak
- ♥ Pottsak
- ♥ Bituteria

Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425

EZKONTZAK

David Deveza Llorens eta **Maria Otero Fernandez**, Donostiakoak Artikutzan, ekainaren 28an.

Luis Arretxea Mikelarena eta **Pamela Catalina Sepulveda Palacios**, Sunbillakoa eta Bartzelonakoa, uztailaren 12an, Sunbillan.

Jean Baptiste Touyarot eta **Julie Pottier**, Sarakoak, uztailaren 11n.

Javier Otermin Leiza eta **Iosune Ortega Arraztoa**, Elizondokoak, ekainaren 21ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



kukuka
BIGARREN
MERKEALDIA

Zarpigintze, 1 • DONEZTEBE • 948 450 252

SORTZEAK

Jon Osakar Urrutia, Elizondokoa, ekainaren 30ean.

Elenne Osakar Urrutia, Elizondokoa, ekainaren 30ean.

Olaia Igoa Orta, Lesakakoa, ekainaren 23an.

Zuhatz Oiartzabal Larralde, Lesakakoa, uztailaren 6an.

Markel Lasarte Barredo, Berakoa, uztailaren 4an.

Urko Aranburu Galarregi, Etxalarkoa, ekainaren 28an.

Beñat Ansalas Maiz, Etxalarkoa, uztailaren 2an.

Ibon Retegi Mujika, Igantzikoa, uztailaren 8an.

Oñatz Korta Garcia, Sunbillakoa, uztailaren 8an.

Mara Mariezkurrena Erregerena, Iturengoa, ekainaren 13an.

Mairi Irigoien Altxu, Iturengoa, uztailaren 8an.

Maia Ariztegi Zabaleta, Doneztebekoa, uztailaren 3an.

Elaia Jarry Hemeret, Sarakoa, ekainaren 25ean.

Nerea Lasaga, Sarakoa, ekainaren 19an.

Mattin Lafitte Urdanpilleta, Sarakoa, ekainaren 27an.



Rekordatorioak egiten
ditugu

Nahi duzun argazki eta
testuarekin prestatua

ttipi-ttapa
Hortako bidea, 7 | 31770 LESAKA | 948635458

HERIOTZAK

Martin Alti Ariztegi, Zugarramurdikoa, uztailaren 4an, 83 urte.

Carmen Oiartzabal Plazas, Elizondon, uztailaren 10ean, 95 urte.

Juana Mari Saizar Sukuntza, Aresokoa, uztailaren 11n, 88 urte.

Jokine Baraibar Ezkurdia, Leitzakoa, uztailaren 12an.

Pilar Etxebeste Zoziaia, Igantzikoa, uztailaren 15ean, 88 urte.

Pilar Pabolleta Irazoki, Berakoa, uztailaren 15ean.

Miguel Sorondo Zapiain, Berakoa, uztailaren 15ean, 92 urte.

Gurutze Iparragirre Oskoz, Arantzakoa, uztailaren 15ean, 18 urte.

Roger Elhorga, Sarakoa, uztailaren 2an, 55 urte.

Juana Urtxegi Etxebeste, Berakoa, uztailaren 17an, 83 urte.



Gurutze IPARRAGIRRE OSKOZ

Joan zaigu gure Gurutze: izaera goxoko neskatxa, pertsona paregabea, ikasle fina. Norat joan zaigun ez dakigu. Hor goian dizdirka ari diren izarren artean ote dago?, edo Arantzako errekatxoek xuxurlatzen duten doinuetan?, akaso ilunabarreko haize epelean ku-kuka?.

Utzi diguzun hutsuna dela eta, ez dugu bertz erremediorik: horrelakotan bilatuko zaitugu, Gurutze. Ongi izan.

TOKI ONA INSTITUTUA ETA GURASO ELKARTEA



Oroigarriak egiten ditugu

ttipi-ttapa Hortako bidea, 07-1. | 31770 LESAKA | 948635458



ARGAZKIA: DIARIO DE NOTICIAS

Txapeldunak eta txapeldun ordeak, federazioko, Nafarroako Gobernuko eta Berako udaleko ordezkariekin batera.

PILOTA → UZTAILAREN 5EAN LABRITEN

Nafarroako Herriartekoa bigarrenenez irabazi du Berak

Lau partidetatik hiru irabazi zizkion Uharteri

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Herriarteko Pilota Txapelketaren historian, bere bigarren txapela jantzi du Berako taldeak. Duela 35 urte jantzi zuen lehendabizikoa, orduan Lizarrari irabazita, eta aldi honetan, uztailaren 5ean Iruñeko Labriten jokatu zen finalean Uharteren kontra nagusitu zen. Lau partidetatik hirutan gailendu zen Berako taldea.

Albinitan, partida berdinua jokatu zuten Berako Asier Telletxea eta Josetxo Sesek eta Uharteko Oscar Jamar eta Gaizka Esainek. Azkenean, 16-18ko markagailuarekin beratarak nagusitu ziren.

Infantiletan, erraz na-



ARGAZKIA: DIARIO DE NOTICIAS

Berari garaipena eman zioten lau bikoteak.

gusitu ziren beratarak. Beñat Ordoki eta Jonan Fagoaga lesakarrak aritu ziren Berako taldean eta Uharteko Unai Elizalde eta Unai Urizen kontra. 5-18 irabazi zuten lehendabiziko bikoteak.

Jubeniletan, bi aurrelarirekin aritu behar izan zuen Berako taldeak, finalerdietan bezalaxe. Beñat Mitxelena eta Andoni Lazkanotegik jokatu zuten, atzelari aritzen den Jon Olaizola eskuko minarekin ze-

goelako. Uharteko Joseba Sarasa eta Iñigo Larunbe izan zituzten arerio eta azken hauek 22-3 irabazi zieten.

Seniorren mailako partida erabakiorra izan zen. Oraindik ere lehen urteko jubenilak diren eta hala ere, txapelketako partida guztiak irabazi dituzten Ander Errandonea eta Iñigo Martinez izan ziren Berako ordezkariak. Uharteko Oier Loban eta Iosu Linzoinen kontra aritu ziren eta 13-22 ira-

bazi zieten. Giro polita sortu zen Iruñeko Labriten eta Beratik hiru autobusetan eta autoetan joandako dozenaka eta dozenaka jarraitzaileekin batera ospatu zuten pilotariek garaipena. Herrira bueltan ere, Alzateko pilotalekuan herri bazkaria izan zuten.

ORAIN EUSKAL HERRIKOAN

Nafarroakoa irabazi orduko Euskal Herriko Herriartekoari ere ekin dio Berak, Hego Euskal Herriko bertze hiru herrialdetako txapeldunekin batera. Finalerdian Amurrioren kontra arituda eta Araban hiru partidetatik bi irabazi zituen Berak. Asteburu honetan zuten itzulerakoa Eztegaran eta finalerdia gaituzte gero, Gernika edo Donostia esperoan izanen dituzte finalean.

TXAPELDUNAK	
1970	Altsasu
1971	Oroz-Betelu
1972	LEITZA
1973	LEITZA
1974	Oroz-Betelu
1975	Oroz-Betelu
1976	Larraun
1977	Oroz-Betelu
1978	Larraun
1979	BERA
1980	GOIZUETA
1981	Larraun
1982	Lizarra
1983	GOIZUETA
1984	Larraun
1985	Lizarra
1986	GOIZUETA
1987	Iruña
1988	Larraun
1989	Iruña
1990	GOIZUETA
1991	GOIZUETA
1992	GOIZUETA
1993	Iruña
1994	Uharte Arakil
1995	Lizarra
1996	Lizarra
1997	Lizarra
1998	Lizarra
1999	Iruña
2000	BAZTAN
2001	BAZTAN
2002	Lizarra
2003	Lizarra
2004	Uharte
2005	Lizarra
2006	Lizarra
2007	LEITZA
2008	Uharte
2009	Iruña
2010	BAZTAN
2011	DONEZTEBE
2012	DONEZTEBE
2013	Iruña
2014	BERA

HERRI KIROLAK → NAFARROAKO TXAPELKETAK

Txapel eta errekor uzta polita aurten ere Iruñean

Maika Ariztegi marka hobetu du ingude altxatzen eta Unai Bertizek harrijasotze txapelketa irabazi du zazpigarrenez

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Nafarroako hainbat herri kirol txapelketa erabaki dira Iruñeko Sanferminetan eta aurten ere txapel uzta ederrarekin bueltatu dira hiriburutik eskualdeko kirolariak.

Nafarroako emakumezkoen arpana txapelketan Nerea Sorondo eta Amaia Gartzia beratarrek irabazi zuten, iaz bezalaxe. 5 minutu eta 44 segundoz ebaki zituzten 45 on-tzaren hamar korteak. Iraizoz ahizpak izan ziren bigarren (06:29) eta Nuñez eta Lopez hirugarren (07:06).

Maika Ariztegi errekorra hobetuz irabazi zuen Nafarroako ingude altxatze txapelketa. 93 altxaldi eman zizkion bederatzi kiloko ingudeari. Bigarren sailkatua bere ahizpa Mertxe izan zen. Gizonezkoen ingude altxatze txapelketan Josetxo Urrutia leiztarra suertatu zen txapel-

peldun, 18 kiloko ingudeari 84 altxaldi egin ondotik. Berako Herri Kirol Taldeko Aritz Izuzkiza hirugarren izan zen, 78 jasoaldiekin. XIV. San Fermin Motozerra sarian Oieregiko Esteban Arruti nagusitu zen, lau probetatik hiru irabazita.

Kadete mailako Nafarroako arpana txapelketan Basaburua-Baztango Eneko Irigoien eta Andoni Galarregi suertatu ziren txapeldun eta Antton Irigoien eta Iker Aleman azpitxapeldun.

Nafarroako harrijasotze txapelketan zazpigarren txapela jantzi zuen Unai Bertiz sunbil-darrak, 16 altxaldirekin. Josetxo Urrutia leiztarrrak 13 altxaldi egin zituen eta Xabier Ariztegi Santxin etxalartarrak 9.

Emakumezkoen txinga eramate txapelketa Xanta Souza lesakarra erraz nagusitu zen, 47 plaza eginez. Estitxu Almandoz lesakarrak 11 plaza eta erdi egin zituen eta Berako Nerea Sorondok 11 plaza eta laurden.

Joan den urtean bezala, Eneko Telletxea igantziarrak irabazi zuen Nafarroako lasto altxatze txapelketa, 12 altxaldirekin. Amaiurko Lander Landiribarbigarren izan zen.

Uztailaren 13an, Na-



ARGAZKIA: DIARIO NOTICIAS

Amaia Gartzia eta Nerea Sorondok berriz ere irabazi dute Nafarroako txapelketa.



ARGAZKIA: DIARIO NOTICIAS

Oieregiko Esteban Arrutik irabazi du San Fermin motozerra saria.

Nafarroako bikotekako txapelketa jokatu zen eta Ander Erasun aurtiztarra eta Jon Rekondo leiztarra suertatu ziren txapeldun, Floren Nazabal eta Ruben Saralegi eta Donato Larretxea eta Juanjo Lopez aitzinetik.

Gurdi altxatzen, Xabier Urrutia arraioztarra suertatu zen txapeldun, 10 zentimetro eskasengatik. Bi itzuli, laurden bat eta 4,10 metro egin zituen gurdia altxatuta. Josetxo Urrutia leiztarrrak, berriz, bi itzuli, laurden bat eta 4 metro egin zituen. Iruñeko Alvaro Zugarrondo hirugarren izan zen.

Hondar egunean, Nafarroako txinga era-

mate txapelketa jokatu zen. Iberoko Adrian Beruezo nagusitu zen, Jo-

setxo Urrutia eta Unai Bertizi aurre hartu ondotik.

FINALA ABUZTUAREN 17AN EZKURRAN

Hirugarren mailako aizkora txapelketaren kanporaketa jokatu zen

TTIPI-TTAPA

Nafarroako hirugarren mailako aizkora txapelketako kanporaketa ere jokatu zen Iruñeko Sanferminetan, uztailaren 10ean.

Bi kanaerdiko moztu behar zituzten eta lehenbiziko borts sailkatuek lortu zuten abuztuaren 17an, eguerdiko 12etan Ezkurran jokatuko den finalerako txartela: Arostegiko Oier Kañamares (4:29), Zubietako Mikel Indakotxea (4:47), Zigako Joxean Etxeberria (5:12), eta Beintza-Labaiengo Migel Angel Etxeberria (5:13) eta Pello Telletxea (5:43). Finaletik kanpo gelditu ziren Beintza-Labaiengo Joxe Mari Elizondo (6:47), Gerendiango Esteban Pikabea (7:38) eta Uhar-teko Koldo Garcia (12:19).

uztailak 24 - abuztuak 7

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Erakusketak

BAZTAN | 2014.07-2014.09
Artearen Ibilbidearen baitan erakusketak Baztanen
Aurten ere margo, argazki eta eskultura erakusketa ugari antolatu dituzte Baztanen Artearen Ibilbidearekin. Arizkun, Erratzu eta Elizondon izanen dira.

Ateraldiak

DONEZTEBE | 2014.07.26
Erreka Elkartearen udako mendi ateraldia Mallo de Acheritora
05:00etan abiatuko dira kiroldegitik Linza inguruan dagoen 2.375 metroko mendira joateko. Ez du aparteko zailtasunik eta edozeinek egiteko modukoa da.

Ospakizunak

LEITZA | 2014.08.09
Ekitaldi ugari Independentzia Egunaren harira
Egun osoko besta antolatu dute independentziaren alde. Egitarauaren barne, Kataluiniatik etorritakoek Castellera egingen dute.

Ikastaroak

DONEZTEBE
EGA titulu eskuratzeko
Abuztuaren 4tik 29ra. Izen-ematea uztailaren 30era arte: 948 451555 edo malerreka@ikaeus.kaltegia.eu.

Erakusketak

SARA
Margo eta eskulturak
Uztailaren 31ra arte Lur Berri gelan, Sarako Larrungo Koloreak-en eskutik.

BERTIZ

Euskal Artzainak Ameriketako elkarteko erakusketa
Abuztuaren 31ra arte Bertizko Jauregian.

BERA

Julio Caro Barojaren inguruko erakusketa etnografikoa

Uztailaren 31tik irailaren 14ra Kultur Etxean.

LESAKA

Elias Garraldaren margo erakusketa
Abuztuaren 31ra arte Kultur Etxean.

BAZTAN

Artearen Ibilbidearen baitan erakusketak

Uztailaren 27tik abuztuaren 21era Jose M^a Apezetxearen margo erakusketa Erratzuko Zubietan.
Uztailaren 23tik abuztuaren 31ra Tomas Sobrinoren margoak Arizkunenean.
Abuztuaren 31ra arte Xabier Soubeleten margoak Arizkongo Sasternean.
Abuztuaren 31ra arte Ana I. Gonzalez Diezen

margoak Elizondoko Santiago, 32-n.

Antzerkia

BERA
Bisita antzeztua

Uztailaren 24an Julio Caro Baroja gogoan eta EHUKo udako ikas-taroen barne, herriko plazatik Itzearaino bisita antzeztua, 18:00etan.

Ikuskizunak

ZUGARRAMURDI
Lezeetan emanaldiak

Uztailaren 26an

Embruxe ikuskizuna 21:30ean.
Abuztuaren 8an Mitologia eta sorginkeria txistu alardea (18:00).

BERA

Nazioarteko Gazteen Folklore jaialdia

Uztailaren 28an eskolako frontoian (20:00).

Zinema

BAZTAN
Udako zinema
Uztailaren 28an Aste-

rix eta Obelix, maies-tatearen zerbitzura pelikula ikusgai Azpilketako frontoian 22:00etan.

Abuztuaren 4an *Porco Rosso* pelikula ikusgai 22:00etan Erratzuko frontoian.

Ospakizunak

SARA

Saguzarren gaua

Uztailaren 24an lezean.

Errugbi elkartearen besta

Abuztuaren 2an plazan.

Eskubalo elkartearen besta

Abuztuaren 16an plazan.

LEITZA

Independentzia eguna

Abuztuaren 9an egun osoko besta.

Lehiaketak

MALERREKA
12-24 urtekoendako film labur lehiaketa

Irailaren 15era arte aurkez daitezke lanak Osasun Zentroan, Mankomunitatean edo Doneztebeko Liburutegian CD batean edo laburmetraiak@gmail.com-era igorritz. *Bestaz eta lagunez gozatu alkoholik edan gabe edo gutti edanda* izenburupean.

Bestak

ELIZONDO
Santioak

Uztailaren 24tik 28ra.

ARANO

Santioak

Uztailaren 24tik 27ra.

ELGORRIAGA

Santioak

Uztailaren 24tik 27ra.

PROPOSAMENA

ESKUALDEA

Bestak Bera, Beintza-Labaien, Gaztelu, Leitza Sunbilla eta Zigan

Santioak pasata eta abuztuan sartzearekin batera, herriko besten lekukoa hartuko dute hainbat herrik. Bera, Beintza-Labaien, Gaztelu, Leitza, Sunbilla eta Ziga dira eskualdean bestak ospatuko dituztenak. Herri guztietan haur, gazte nahiz helduek izanen dute non gozatua. Egitarau guztiak gure aldizkarian aurkituko dituzue.



BERA

Sanestebanak

Abuztuaren 1etik
5era. Aitzineko asteburuan ere ekitaldiak.

BEINTZA-LABAIEN

Herriko bestak

Abuztuaren 1etik 4ra.

GAZTELU

Santo Domingo bestak

Abuztuaren 1etik 4ra.

ZIGA

San Lorenzo bestak

Abuztuaren 8tik 11ra.

SUNBILLA

Santiburtzio bestak

Abuztuaren 9tik 14ra.

LEITZA

Santiburtzio bestak

Abuztuaren 2 eta 3an
eta 9tik 15era.

Kontzertuak

SARA

Saiberri taldea

Uztailaren 24an
elizan, 21:30ean.
Sartzea 5 euro.

Azokak

SARA

Ortzegunero azoka

Uztailaren 3tik irailera
09:00etatik aitzinera
bertako produktuen
azoka frontoian.

Ekoizleen merkatua

Abuztuaren 15ean.

Mendi irteerak

DONEZTEBE

Pirinioetara ateraldia Errekaren eskutik

Uztailaren 26an Mallo
de Acheritora (2.375 m)
ateraldia. 05:00etan ki-
roldegitik abiatuta.

Gertaera guztiak
ikusteko, begiratu:
www.ttipi.net
(agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Ez zen diruagatik

ANA JAKA

Elkar, 2014

Emakume zakar eta zabar samarra da Olga, ez lanik, ez dirurik, gaztarotik urruntzen eta etorkizunik gabeko harreman erdipurdiko batean ka-teatua dagoena. Pisukidea du Dani, etxetik ihes egin eta zerbitzari gisa lan egiten duen gaztetxoa. Eta hiruki atipikoa osatzera dator Mikel, bizimodu normalagoa daraman adin ertaineko gizasemea, baina iraganetik dakarren zamatik askatu ezin duena. Pertsonaien harremanetan, haien psikologian eta sentimenduetan oinarrituriko eleberrria dugu Ana Jakaren *Ez zen diruagatik* liburua, baina ez inola ere sentimentala eta gozoa. Adiskidetasunaren balioa, leialtasunaren zentzua, bikotekide bati zer eskatzen ahal diogun, diruak eta diru ezak sortzen dizkiguten katramilak... horra orri hauetan topa daitekeen koktelaren zenbait osagai.

Musika



Pantailak

LADISLAO

Bonberenea Ekintzak,
2014

Ladislao Lazkaotik (Gipuzkoa) datorren taldea da. Duela bi urte hasi ziren lokalean bertsio batzuk jotzen eta beraien abestiak sortu eta gero osatu dute euren lehen lana, *Pantailak*. Punk rock-a jorratzen dute hardcore ikutuekin eta Bonberenea estudioan grabatu dute lan hau, Karlos Osinagaren gidaritzapean. Hamabi kantuz osaturiko diskoa da, hamabi abesti azkar eta zuzenak. Hitzetan denetarik ageri da: kritika soziala, gaur egungo gaiak... Atez ate abestiarekin ireki dute diskoa, hondakinen inguruan sortu den polemika deitoratzeko. Bildumari izenburua, berriz, pantailarekiko daukagun adikzioak eman dio. Talde berria bada ere, taldekideen ibilbidea luzea da musika munduan, Brigada Criminal, Captain Nemo, Los Rockinson, Fist Fucking, Señor No eta Eskoriatza taldeetan arituak dira, bertzeak bertze. Joseba eta Iker Artza anaia lazkaotarrek, Xabier Lekuona herriarrak eta Josu Errasti eskoriatzarrak osatzen dute taldea.

Internet



Crowdfunding
plataforma

WWW.KARENA.EU

Karena crowdfunding plataforma Donostian sorturiko ekimen baten gauzatzea da. 2013an bi donostiar eta gasteiztar batek, Ekain, Unai eta Txemik, auzolanaren eta egitasmo ttiki zein ertainen finantzaketarako tresna euskaldun baten beharra zegoela ikusi zuten. Behar horri erantzuteko asmoz, munduan zehar martxan zeuden esperientzia ezberdinak aztertzeari ekin zieten, eta azkenik, 2014ko udaberrian, crowdfunding plataforma hau sortu zuten: Karena. Helburu jakin batzuekin eman zieten hasiera proiektu honi, eta horiek bihurtu dituzte euren jardunaren ardatz. Ardatz hori osatzen duten gako nagusiak Euskara, Auzolana eta Prozesu parte-hartzaileak dira. Euskara, jatorrizko hizkuntza hori delako, lanabesa eta oinarria. Auzolana, herritik sortutako ekimenei indarra eta sostengua eman nahi dietelako. Eta Prozesu parte-hartzaileak aipatzean, asmoak gauzatzeko modu berriak eta ez hain berriak bultzatzeko sortua delako.

Nire aukera



Mikel ARRIETA
Sunbillako gaztea

«Gorputzak lagundu bitartean, ahalik eta gehien disfrutatzen ditut bestak»

Ulibeltzak elkarteko juntan sartu berritan, besten antolaketan burubelarri dabil Mikel «hasiera nahiko gogorra izan da, oraindik elkarteko martxa hartu gabe bestetak ate joka ditugulako». Erantzukizunek ez diote bestarako gogoia kendu ordea «gorputzak lagundu bitartean ahalik eta gehien disfrutatuko ditut». Sortzen den «herri giroa» maite du eta egun bakar batean ere ez du hutsik egiten «bezperan zopak, Santiburtzio egunean eguerdian dantza-tu eta dantzarien afaria, hurrengo egunean auzoko afaria, peñen egunean bazkarira joan eta besta pixkot egin eta azkeneko egunean mus eta plater tiraketan parte hartu ondoren herri afarira joan ta bestak ongi akitze-ko eta gorputzak laguntzen badu besta eder bat egiten dut». Ekitaldi guztiek «zerbait berexia dute» erran digu, baina «auzokoan arteko afaria» azpimarratu digu «adin guztietako auzotarrak bil-tzen garelako». Bestak bukatzean, «errekupartzeko atsedean hartu ohi du» eta aurten ere horren beharra badu ez da sei-nale txarra izanen.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONÓZ-MUGAIRI.

Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Bero-gailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi Pta/ 100.000 €. 948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- Aukera: 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

ERATSUN. Hiru borda salgai, lur eremuarekin. 943 217817.

ARESO. Sastizar baserria salgai, 25.000 m²ko lur eremuakin. 649 707584.



ARIZKUN. Etxebizitza salgai. 190 m² eta 6 logela. Bista zoragarriak. 646 364846.

DONEZTEBE. 92m²ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, 2 balkoi, igogailua eta berogailua. Mobelztatua eta bizitze-
ra sartzeko prest. Egoera onean. 678 633562.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

LEITZA. Amazabal ka-
lean pisua eta bajera
salgai. 3 logela, suka-
dea, komuna eta egon-
gela. Igogailuarekin.
90.000 euro. Oso auke-
ra ona. 660 856246 /
634 406302.

ORONÓZ-MUGAIRI.

Apartamendu berria sal-
gai, mobleztatua, igog-
gailua eta berogailuare-
kin. Logela bat, suka-
de-egongela, komuna
eta trastelekuarekin.
74.000 euro. 626
463576.

ORONÓZ-MUGAIRI.

Etxe berria eta oso argi-
tsua salgai urbaniza-
zio pribatuan, igerile-
kuarekin, padeleko pis-
tarekin, frontoiarekin eta

lorategi komunitarioe-
kin. Egongela sukalde
ederra, logela bat, ko-
muna, trastelekua eta
garajea. Igogailua eta
berogailu instalazioa.
79.000 euro. 661
898970.

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

LESAKA. Apartamen-
tua errentan emateko
irailaren 15etik aurrera
astelehenetik ortzirale-
ra. 2 logela bakoitza be-
re komunarekin, suka-
dea eta egongela. Tele-
bista. Kotxea behar da.
Herriatik 2 KM. 678
855056.

IRUÑEA. Baztandar ba-
tek ikasleendako pisua
errentan emateko
UPNAtik 5 minututara.
620 209663.

LESAKA. Ote kalean pi-
sua errentan emateko.
Berritu berria eta mo-
bleztatua. Ganbara eta

bajera ere baditu. 661
262531.

BERA. Herri erdi-erdian
pisu mobleztatua erren-
tan emateko. 2 gela, su-
kalde egongela eta bai-
nugela bat. Kalefazio eta
igogailuarekin. Autoa-
rendako garaje plaza
aukeran. 696 843298
(18:00etatik aitzinera).

BERA. Eztegar pasea-
lekuan pisua errentan
emateko. 3 logela, su-
kaldea, egongela, komu-
na eta terrazarekin. De-
na mobleztatua. 697
322391.

ORONÓZ-MUGAIRI.

Etxe berria eta oso argi-
tsua errentan emateko,
urbanizazio pribatuan,
igerilekuarekin, padele-
ko pistarekin, frontoiare-
kin eta lorategi komuni-
tarioekin. Egongela su-
kalde ederra, logela bat,
komuna, trastelekua eta
garajea. Igogailua eta be-
rogailu instalazioa. 325
euro. 661 898970.

IRUÑEA. 4 gelako pi-
sua errentan emateko,
UPNAtik bertan. 662
376520.

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

DONEZTEBE. Pisua
errentan hartu nahi da.
Hiru logela eta igogai-
luarekin. Mobleztatua.
Toki lasaian dagoena.
600 643460.

ETXEBIZITZAK

konpartitzeko

BERA. Etxebizitza kon-
partitzeko neska ardu-
ratsua nahi da, erretzai-
lea ez dena. Auzo la-
saietan eta egoera one-
an. 662 585965.

GARAJEAK/LOKALAK

salgai

LESAKA. Eltzetako pla-
zan lur azpiko garajea
salgai. 646 774117.

GARAJEAK/LOKALAK

errentan emateko

BERA. Suspela auzoan
nabe eder bat errentan
emateko. 677 471966.

LURRAK/ORUBEAK

salgai

LEITZA. Etxebizitza fa-
miliar bat egin daiteke-
en lur eremua salgai.
685 981961.

LANA

eskariak

**ELIZONDO, IRURITA,
LEKARÓZ, GAR-
TZAIN.** Ikaslea den nes-

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(ekainaren 27tik uztailaren 4ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA**Zerrikumea**

(19 kilo): 48 € (-3,00)

Zerri gizena

1,475 € kilo. (+0,020)

Zerramak:

0,770 € Kg/bizirik. (+0,010)

BEHIKIA**Aretze gizenak:****Idixkoak:** €/kg. Kanal**Extra** 4,25**1.koa** 4,02**2.koa** 3,87**Urruxak:** €/kg. Kanal**Extra** 4,35**1.koa** 4,06**2.koa** 3,92

Oharra: Prezioak 180-220
Kg. kanalean pisatzen du-
ten aretzeenak dira.

Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 120,00

idixkoak 238,00

Aretze nabarrak:

urruxak 140,00

idixkoak 160,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,00/3,10

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 6,30/6,90

8-10 kilokoak: 5,10/5,80

[illegible]

%10
%8
%5
OPARIAK
ALDIZKARIA
BAZTAN
MALERREKU
BORTZIRIAK
LEITZA

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,37€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txakea; 4) www.ttipi.net bitartez



Goizuetako JUNE ALSUA YARZAK urteak beteko ditu abuztuaren 21ean. Zorionak printzesa zure 6. urtebetetzean. Muxu haundi bat familiaren partetik.



Zorionak Legasako NAHIA MARINELARENA ELIZALDERI, uztailaren 25ean 3 urte beteko dituelako. Muxu handi bat Zubietako familia guztiaren partetik eta batez ere zure lehengusu Janire, Aimar eta Enaitzen partetik. Prestatu berendu goxoa!



Elizondoko EÑAUT OTEIZA LARRE eta aitabai XANTIO LARRE ARRAZTOAK urteak bete dituzte uztailaren 7an eta 20an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Arantzako ENERITZ eta IRAIDEK abuztuaren 19an eta irailaren 26an 6 eta 8 urte beteko dituzte. Zorionak! Aunitz maite zaituztegu! Muxuak bie!



Legasako JUNE MENDIBURU ANDRESENA eta ARAI ARTEAGA ANDRESENAK urtea bete dute uztailaren 12 eta 23an. Zorionak eta muxu potolo bat gure etxeko bi sorgintxoentzat Legasako familia eta bereziki Naiararen partetik.



Legasako NAHIA MARINELARENA ELIZALDEK uztailaren 25an 3 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat; Uruguaiako ataubi-ama-txi, Zubietako ataubi-ama-txi eta bereziki attato eta amaxoren partetik. Prestatu berendu goxua xorgintxo.



Berako AIALA SAN JUAN AROZENAK 8 urte beteko ditu abuztuaren 12an. Zorionak eta 8 muxu familia eta bereziki Gexanen partetik. Ongi pasa uda!



Berako GEXAN SAN JUAN AROZENAK 5 urte beteko ditu uztailaren 30ean. Zorionak eta 5 muxu Aiala eta familiaren partetik. Tarta goxoa prestatu!



Sunbillako IBAI PETRIRENA GOROSTERRAZUK abuztuaren 9an 4 urte beteko ditu. Aunitz urtez eta 4 muxu haundi familia guztiaren partetik, baina bereziki hainbertze maite zaituzten Iraide eta Garaine lehengusinen partetik. Berendu goxo-goxoa prestatu lehengusu, eta ongi pasa eguna.



Berako JANIRE IBARBURI ANDUEZAK bi urte beteko ditu abuztuaren 7an. Zorionak etxeko tikiari eta muxu bat familiaren partetik. Aunitz urtez!




Igantziako ALAINE BAZTERRIKA ANTXORDOKIK uztailaren 22an 5 urte bete ditu. Zorionak Sunbilla eta Igantziako familiaren partetik. Muxu pila pila matia!



AROAK MIKELARENA TABERNAK eta bere attatto IÑAKIK urteak beteko dituzte uztailaren 19an eta 26an. Aunitz urtez amaxoren partetik!



UNAI ARANGUREN MUTUBERRIA etxeko 'nagusitikiak' 5 urte beteko ditu abuztuaren 1ean. Aunitz urtez familia eta Naia, Olaia eta Oihannen partetik.



Uztailaren 22an Urrozko IRUNE URROZ GONZALEZ 9 urte bete ditu. Zorionak senide, guraso, amatxi, osaba, izeba eta familia guztiaren partetik.



Arantzako AROAK urtea bete du uztailaren 19an. Zorionak familia guztiaren partetik eta batez ere bere lehengusu Olaia, Oihane, Irati eta Aritzen partetik. Muxuk potxoli!



Lesakako UNAI ARANGUREN MUTUBERRIAK abuztuaren 1ean 5 urte beteko ditu. Aunitz urtez eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



NAHIA AGIRRE JORAJURIAK uztailaren 20an 8 urte bete ditu. Anitz urtez gure neskatxari familiaren partetik, bereziki Enara eta Urkoren partetik.



Arantzako EIDER TABERNA MUTUBERRIAK 11urte beteko ditu uztailaren 30ean. Muxu handi bat familiaren eta bereziki Asier eta Naroaren partetik.



DISEINU GRAFIKOA

Komunikazio elementuak garatzen ditugu:

IRUDI KORPORATIBOAK

• logotipoak eta papergintza •

ARGITALPENAK

Aldizkariak, Katalogoak, Bestetako Programak, Udal Aldizkariak, Folletoak, Liburuak, Mapak...

BERTZE EUSKARRIAK

Boletok, pegatinak, lonak, roll up, panelak, poltsak, txapak...

EGUTEGIAK: SAKELEKOAK, PARETAKOAK, MAHAI GAINEKOAK

Koskontako bidea, 7 31770 LESAKA T. 948 635 458 kulturkari@ttipi.net
www.kulturkari.com

ttipi txartela

ttipi txartelarekin beti irabazten da !

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPi-TTAPA ALDIKARIA MUNDURIK

100%ko DESKONTUAZ ERRENTA AITORPENEAN

Esikatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPi-TTAPA

Konturatu bidea 7 LESAKA
T: 948 635 458 F: 948 635 457
info@ttipi.net
www.ttipi.net

ZOZKETAK

618 ALEKO IRABAZLEAK

KAMISETA BAT | Onido txartela

Fco Javier Iriarte | **ARIZKUN**

TXOKOLATE LOTEA | Arripeak gaztegia

Andres Barberena | **ELIZONDO**

3 LIBURU | Itazabal

Zorri muntatzen gaus

Irene Opoka | **AMAIUR**

Saioa Mitxelena | **BERA**

Antton Lazkanotegi | **BERA**

TXANTXARIK DVDa | Urkintza eskola

M^a Jesus Etxekonea | **URROZ**

2 SARRERA | Imasari Land

M^a Lourdes Antxordoki | **LESAKA**

2 SARRERA | Aquarium

Jon Sansiferia | **ETXALAR**

1

KAMISETA BAT

Onin Art

www.oninart.com

oninart



2

LOTEA

Martiko

www.martiko.com



3

HARPIDETZA HILABETE 1

Berria egunkaria

www.berria.info



berria

4

BIKOTE KARTAK

Pirritx eta Ponotx

www.sansiprensa.com



5

2 SARRERA

Sorginen lezeak

www.turismozugarramurdi.com

SORGINEN LEZEA



6

2 SARRERA

Donostiako Aquariuma

www.aquariumna.com

AQUARIUM



DESKONTUAK

SANSIÑENA TAILERRA

ELIZONDO | %5 edo aldaketetan

Ostargi optika

BERA | %5eko deskontua produktu guztietan

nafarpress

ELIZONDO | %10 liburu eta ikas materialen, testu liburuak eta bideoak izan ezik

ELBETE POSADA

ELBETE | %10, kartan, 30etik gorako gastuan

bixkak

KIROL ETA MODAKO

LESACA | %10eko deskontua

Imasari

LAND | %50 dte SARRERAN eta %20 dte TIROLINA eta PENDULUA

jeukuntza berezi eta paketeetan izan ezin



benta berri

JATETXEA • Ibardingo gaina • BERA
T. 948 63 07 08

ETORRI IBARDINERA **BERAKO** **BESTAK** GUREKIN OSPATZERA

BESTETAKO MENUAK:

25€

edo

35€

GARRAIO ZERBITZUA

MENDIKO

SAGARDO'EGIA • ERRETEGIA • JATETXEA



T. 948 63 03 02

Ibardingo gaina • BERA • Nafarroa
www.mendikoibardin.com

